

TOKIKOM

2021eko urtarrila | 210. zenbakia

# Asier!

iko aldizkaria




Asier del Rio  
**Profesionala**





PERSIANAK  
ETA LEIHOAK



PERSIANAS Y  
VENTANAS Y  
GORDONIZ



ERABERRITZE  
INTEGRALAK



SOROPIL ARTIFIZIALA

TOLDOAK ETA  
ELTXO-SAREAK



Gordoniz 97, 48002 BILBAO

946 034 689 – 678 054 887 

[www.persianasgordoniz.com](http://www.persianasgordoniz.com)

[info@persianasgordoniz.com](mailto:info@persianasgordoniz.com)



Jarraitu  
Gizarte-sareetan



ESTOREAK  
PANEL JAPONIARRAK



**Kaixo, Bego. Enpresa orain dela sei urte ipini zenuten martxan, eta jakin nahi dugu zer moduz zabilzaten.**

Kaixo! Orokorrean oso pozik gaude. Zeretik hasten den edonori gertatzen zaion bezala, une latzak bizi izan ditugu, baina balantzea positiboa da.

**Pentsatzen zenuen gaur zauden lekuan egongo zinela? Eta hain azkar?**

Ez. Oso enpresa gaztea izan arren, Interneten oso ondo posizionatuta gaude, baita kalean bertan ere. Merkatura sartu ginenean, gainerako enpresek urte asko zeramatzaten sektorean eta guk geure lekua topatu behar izan genuen ezagunak izateko. Esan dezakegu gaur egun bezero-zorro oso ona dugula, senideei eta lagunei ere gomendatzen baitiete gure zerbitzuak kontratatzeko.

**Eta zure ustez, zergatik da hori?**

Bizitzaren gainerako arloetan moduan, egindako lana eta esfortzua giltzarriak izan dira. Etengabeko heziketa jasotzen dugu eta aktiboki hartzen dugu parte Bilboko merkatarien elkartean zein udalak antolatzen dituen sustapen-ekintzetan; hori lagungarria izan da gure jarduera ezagutera emateko. Baina, jakina, gure profesionalen lanari eta bezeroen gogobetetzeari esker gaude hain ondo posizionatuta.

**Pertsianak eta leihoez gain, beste produktu batzuk ipini dituzue bezeroen eskura, ezta?**

Bai, orain dela urte batzuk zerbitzuak gehitzeko erabakia hartu genuen eta eraberritze integralak egiten hasi ginen. Horretarako, gremio guztietako profesional handiak kontratatu genituen.

**Zuen webgunean ikusi dut soropil artifiziala ere ipintzen duzuela.**

Bezeroek hori ere askotan eskatzen zigutenez, ba, eskaintzen hasi ginen. Zerbitzuaren publizitatea egin bezain laster, Estatutako hainbat enpresa ipini ziren gurekin harremanetan, Espainiako iparraldean beren instalatzaileak izan gintezen. **Soropil artifiziala**ren eta kirol-soropilarren eskaera oso handia da, hori ipiniz gero lorategiak behar dituen mantentze-lanak ekiditen baitira.

**Zelan joan da 2020. urtea? Zelango eragina izan du COVID-19ak zuen jardueran?**

Pertsona guztientzat legez, guretzat ere oso urte latza izan da. Zenbait hiletan itxita izan ginen, eta zabaldu ahal izan ge-

## “Gure lanari eta bezeroen gogobetetzeari esker gaude hain ondo posizionatuta”

BEGOÑA SANCHEZ | Persianas Gordonizen kudeatzailea

Negozio gaztea bada ere, Persianas Gordonizek bere lekua egin du sektorean eta bezero-zorro ona eta fidela izateaz harro egon daiteke. Bego Sanchez da enpresako gerentea eta euren arrakastaren gakoak azaldu dizkigu.



nuenean, hile txarrak etorri ziren. Baina, ondoren, Renove Planari eta ekonomia berpizteko udal-laguntzei esker, lanean hasi ginen berrirori. Bestalde, konfinamenduan asko konturatu ginen oso inportantea dela etxebizitza erosoa eta ondo atondua izatea. Aire zabaleko gunek disfrutatzeko, terraza eta balkoi egokiak izateari garrantzia ematen hasi zen eta, hortaz, oso urte ona izan da boldoen sektorerako.

**Konfinamendua dela-eta, handitu egin da beste produktuen baten eskaria?**

Bai. Eltxo-sareen eskaria oso handia izan da, izan ere, etxebizitzak aireztatzea-

ren garrantziari uda gehitu zitzaion; eta udarekin batera eltxoak etorri ziren. Eltxo-sarea gelditzeko ailegatu den produktua da. Horrez gainera, eta lehen esan dudan moduan, etxean denbora gehiago pasatzen dugu eta jendeak etxeko dekorazioa aldatu egin du: estore biribilgarri eta panel japoniar asko ipini ditugu.

**Beraz, balantze positiboa egiten duzu, ezta?**

Bai, garai latzak bizi izan arren, pozik gaude.

**Eskerrik asko, Bego, zure jardueraren berri emateagatik.**

Eskerrik asko zuei; espero dugu zuekin urte askoan hitz egin ahal izatea.

-  **5** Eretxiak
-  **6** Laburrak eta albisteak
-  **11** Itxialdia
-  **12** Gurean izan da... Nerea Garmendia, aktorea
-  **14** Gaztea eta... Imanol Aparicio
-  **16** Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea
-  **18** Emaus zentroa, Derion
-  **20** Asier del Rio, pilotaria
-  **24** Gure merkatariak
-  **29** Konfinamenduko altxorrak
-  **32** Berbalagun proiektua
-  **34** Teknologia... Itzuli +
-  **35** Aikorrizketa... Geldoko koplak
-  **36** Sukaldaritza
-  **37** Denborapasa
-  **38** Agenda



12 Nerea Garmendia, aktorea



29 Konfinamenduaren altxorrak



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA**  
**POLITIKA SAILA**

**DEPARTAMENTO DE CULTURA**  
**Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA**



**Bizkaiko Foru**  
**Aldundia**  
**Diputación**  
**Foral de Bizkaia**



diruz lagundutako aldizkaria



**Argitaratzailea:** TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkarten Federazioa (Lagatzu, Zorritzeta, Arrekilili, Tximintx komunitatea eta Altzora)  
Tel.: 94 452 34 47 / 688 86 41 35  
aikortxori@aikor.com /  
www.aikor.eus



**Zuzendaria:** Xabier Goienetxe

**Erredakzio burua:** Itxaso Marina

**Erredakzio taldea:** Maite Lekerika, Gaizka Eguzkitza, Juan Luis Goikoetxea

**Kolaboratzaileak:** Aitor Coteron, Oihana Astobieta, Itsasne Zubiri eta Ana Galar

**Zuzentzaileak:** Joseba Butroe, Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

**Publizitatea:** Estitxu Perez (688 782 642)

**Banaketa:** Egunon

**Maketatzailea:** Gaizka Eguzkitza

**Inprimategia:** Gertu

**Ale kopurua:** 8.000

**Lege gordailua:** BI 137-02 ISSN 1578-9322

Aikor! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota eretxien erantzukizunik

## Zer da ongizatea?

Sano pozik nago, benetan. Garai honetan pozik egotea ez da gauza erraza, baina esaten dodanak badauka zergaitia. Ondo egotea oso erlatiboa da. Norberak adierazo behar dau bere ongizatearen arrazoia zein dan; bai, "adierazo" idatzi dot, eta koxka hortxe dago. Ahoak berbak botatzen dauz; halanda be, adierazo, gure gorputzak eta jokaerak adierazoten dabe, ezer esan behar barik.

Aspaldi honetan, hainbat gauza ikusi eta pairatu doguz eta, era batera edo bestera, aldaketek eta gertaerek gure barruari eragin deutsie. Orain urte bi ondo bizitzeko genduzan lehentasunak ez dira gaurkoak, hau da, orduko ongizatea ez da gaurkoa. Gizakiak gara eta hainbat egoerataratu modu naturalean moldatzeko gaitasuna daukagu. Bizi dugun egoera honek gure oinarria eroan gaitu, ahalik eta ondoen bizitzeko neurriak hartzeratu eta gure

barrura begiratzera eta gauza sinpleakaz, inoz pentsauko ez geunkezan gauzakaz, disfrutatzera. Garai honetan, norberaren nortasunaren bitartez eta txikitan jasotako heziketearen ondorioz, gogoratu dogu pozik eta ondo bizitzea zer dan. Osasuntsu nago, hori uste dot behintzat, eta hausnarketea testuinguru horretatik egin dot; gaixorik dagoanak, osteratu, beste modu baten pentsauko dau seguru antzean, baina nik nire ikuspuntua plaza-ratu gura izan dot.

Esate baterako, gurasoenera kafea hartzeratu joatea normala zan orain dala urte bi eta orain luxua dala esan geinke. Batzuok seme-alabakaz eta bikotekideagaz sarriago egotearen mira izan dogu eta azken urtean hareekaz disfrutatzeko aukerea izan dogu. Sarritan gogoratu ez doguzan lagunak be burura etorri jakuz eta, telefonoz izan bada be, berbaldi lu-



**AITOR COTERÓN**

*ikus-entzunezko ekoizle ekintzailea*

zeak izan doguz hareekaz. Bizia detaile txiker askogaz bete dot eta hori da pozik egoteko daukadan arrazoia. Egoera oso latza da beste arlo batzuetan, baina danon artean aurrera egingo dogu; ez dot dudarik. Ganera, euskaldunak gara eta esango neuke egoera latzak gainditzeko berezko ahalmena daukagula. Edozelan be, gauza garrantzitsuak jagotea zer dan be irakatsi deusku biziak; bai horixe.

## Txerto emozionala

Konfinamendurik gogorrenean gengoazala konturatu ginen zein beharrezko dogun kulturea gure bizitzetan: osasun mentale-rako ezinbesteko txerto emozionala dogu.

Kulturak mundu ikuspegia zabal-tzen deusku eta herri izaera indartu egiten dau, batetik, eta, bestetik, faltan horrenbeste bota doguzan hartu-emonak sendotzen dauz. Horregaitik, gorabeherak gorabehera, batzuk ekitaldiak antolatuz gabiz, herriko alkarteen bitartez.

Instituzino batzuk be kulturatan inbertidu dabe, besteak beste, kultur-



**OIHANA ASTOBIETA**

*Irakaslea*

guneak sortzeko proiektuak bultzatu; adibidez, Galdakaon Sormene edo Getxon Muxikebarri. Txorierrin, zoritxarrez, uste dot horrelakoak baino dirulaguntzen murrizketak izan dirala nagusi herriko alkarteen-tzat. Iaz pandemiarengaitik sano gastu gitxi egon zan kulturatan, eta aurtun murrizketak? Horrek ezin dua izan bidea.

Ia udabarriagaz batera kulturea plazara atara eta loraldia jatorkun, izan be, deskonektatzeko eta indarbarritzeko behar-beharrezkoa dogu. Bildurak ez gagizala lotuarazo! Zentzuz eta neurriak betez, baina ekin deiogun kultura kontsumitzeari, egun gris honek kolore apur bat behar dabe eta!

**AmAr**  
ileapaindegia

Asteartea-ostiralea:  
9:00-19:00  
Laburuntza:  
8:00-13:30

Uribe plaza, 1 beheko  
Zamudio  
**94 4520419**

Txinbo kalea, 9  
48170 ZAMUDIO  
94 452 26 75

**CAFE-BAR**  
**BIDE-GORRI**

Askotaniko pintxoak - Plater konbinatuak  
8:00etatik irekia  
WIFI gunea

**Carrefour**  
express

ORDUTEGIA  
Asteleheneetik ostiralera arte  
9:00-14:30 / 17:00-20:30  
Larunbatean  
9:00-14:30

Pago kalea, 5  
48170 ZAMUDIO



# Txorierriko herri guztietatik autobusez joan ahal da aireportura eta Parke Teknologikora

a: Wikipedia

Bizkaibuseko A2153 lineak Bilbo, Erandio, Loiu eta Derio lotzen zituen, eta linea horretan egin den aldaketari esker, Txorierrik zuzeneko lotura du aireportuarekin eta Bizkaiko Zientzia eta Teknologia Parkearekin. Beraz, leku bietara joan ahal da garraio publikoa erabilita, eta, horretarako, ez da beharrezkoa Bilbon autobusa hartzea.

Txorierritarrek aspaldidanik egindako eskaerari erantzuteko, A2153 linearen ibilbidea Deriotik Larrabetzuraino luzatu da eta gero berriak daude Zamudion, Sondikan, Lezaman, Larrabetzun, aireportuan eta Parke Teknologikoan. Zehazki, aireportuko geroak A3247 Bilbo - Aireportua/Aeropuerto linea geratu ohi den toki berean dago; eta Teknologia Parkean,



## Loiu Aurrera Plana

Loiun, 2021erako onartutako aurrekontuaren baitan Loiu Aurrera Plana dago. Josu Andoni Begoña alkateak bere webgunean adierazi duenez, plana udalaren gobernu-taldeak diseinatu du, "gaur egungo ekonomia- eta osasun-krisiari aurre egiteko". Planean 25 jarduera-ildo zehaztu dira, "zeintzuek zutabe gisa sektore zaugarrienentzako laguntzak baitituzte". Plana ahalik eta lasterren ezartzeko asmoa du udalak, "EAJren ustez, unea baita enplegua sortzeko, ekonomia suspertzeko eta pertsonen eta ongizatearen alde egiteko". Horregatik, plana osoko bilkuran aurkeztu dute eta "aho batez" onartu da,

"izan ere, proposamen sozialak eta talde ahulentzako laguntzak" jaso ditu.

Planaren 25 jarduera-ildo hurrengo hauek dira: gizarte-larrialdiko laguntzak indartzea, arrakala digitala txikitzea, adinekoentzako udal-programa, elikagaien bankurako laguntza handitzea, terrazetako irizpideak malgutzea, gizarte-premietarako indartze-programak sustatzea, familia-kontziliaziorako plana, merkataritza eta ostalaritza bultzatzeko bonuak, adinekoentzako segurtasun- eta osasun-programa, terrazetako laguntza ez kobratzea, leku publikoetan jarduerak sustatzea, genero-indarkeria jasaten

duten emakumeentzako programetara diru-partida handiagoa bideratzea, enplegu-plana, ibilgailuen gaineko zerga atzeratzea, hurbileko saltokien aldeko kanpaina, udal-emakidako lokalen alokairua ez kobratzea, kontratazio publikoan klausula sozialak ezartzea, loiu-tarrak kontratatze laguntza-programa, herriko autonomoentzako eta ekintzaileentzako aholkularitza EGAZen bidez, herriko langabeak Lanbideren bidez kontratatzea, COVID-19a prebenitzeko eta kontrolatzeko inbertsioak, zergak eta prezio publikoak bere horretan uztea, ostalaritzarako laguntzak, gazteek etxebizitza alokatzeko diru-laguntzak eta, itxita dauden bitartean, tabernak eta jatetxeak zaborren tasa ordaintzetik salbuestea.

**Al-qhaindegia**  
M<sup>a</sup> Antonia Llodio  
Txorierriko elorridea, 6  
Tel.: 94 452 02 70  
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

**JB** Construcciones-Reformas  
**IÑIGO BARCENA**  
Igeltserotza orokorra  
Especializateak:  
Xafra-lanak  
Zoruak  
944522910 - 665703312 - 652772016

**Arantza Amondarain Lasa**  
Ginekologoa  
Txorierriko elorridea, 6-4  
48170 Zamudio  
94 452 02 70  
a.amondarain@txorierriko.eus

leku hauetan: Arteagan, Innobasquen eta Itsasontzia edo Barco deritzon eraikinean. Bestalde, zapatuetan eta jaiegunetan, Loiuk Bilborekin dituen loturen maiztasuna hobetu egin da eta autobusa orduro irteten da.

Aldaketaren ondorioz, A2153 lineak izen berria izango du: BILBO - Txorierriko Korridorea/Corredor del Txorierrri - LARRABETZU. Lanegunetan eta zapatuetan, autobusa orduro aterako da Bilbotik (Elkano 5), 07:00etatik 22:00etara; eta jaiegunetan, 08:00etatik 22:00etara. Larrabetzutik ere orduro irtengo da 06:20tik 21:20ra, lanegunetan eta zapatuetan; eta 07:30etik 21:30era, jaiegunetan. Autobusa ez da Parke Teknologikotik jaiegunetan pasatuko.

Bestalde, A3248 Astrabudua - Erandiogoikoa - Sondika linea desagertu egin da, A2153 linea berriaren eta Erandioko Udalak berak antzeko ibilbideak dituzten hiri-zerbitzuen ezarpenaren eraginaren ondorioz.



## Sinadura-bilketa, autobus-zerbitzua hobetzeko

Autobus-zerbitzua dela eta, larrabetzuarrek arazo nagusi bi dituzte: alde batetik, goizean autobus bakarra dute Leioako unibertsitatera joateko, 07:00etan, eta eguerdian autobus bakarra etxera itzultzeko, 14:15ak inguruan; eta bestetik, Txorierriko gainerako herriak 2. tarifa-gunean badaude ere, Larrabetzu 3. tarifa-gunean dago; ondorioz, autobus-txartel garestiagoa ordaintzen dute. Unibertsitatera joateko autobus gehiago ipintzeko eta udalerrira 2. tarifa-gunean sartzeko, sinadurak batzeko kanpaina ipini dute abian change.org plataforman urtarilaren 31ra arte.

"Unibertsitatera joateko arazoa dugu Larrabetzuko zein Lezamako eta Zamudioko gazteok. Zuzeneko autobus bakarra egoteaz gain, hura oso goiz ailegatzen da unibertsitatera, 07:30ak inguruan, eta eskola-saioak 08:30ean edo 09:00etan hasten dira. Horregatik, gazte asko autoz

joaten dira Leioara edo autobus bi hartzen dituzte: bata, Larrabetzutik Erandiora, eta bestea, Erandiotik unibertsitatera. Aukera batek zein besteak gastu ekonomikoa dakarte", azaldu digute. "Bestalde, Txorierriko gainerako udalerriak eta Galdakao 2. tarifa-gunean daude; Larrabetzu, berriz, hirugarrenean. Ondorioz, gehiago ordaindu behar dugu: Larrabetzu-Lezama, 1,5 euro; Lezama-Zamudio, 1,35 euro. Larrabetzu Txorierriko udalerrira da eta beste tarifa-gune batean egoteak ez du zentzurik. Gainera, Larrabetzuko ikasleek autobusa hartu behar dute Derioko instituturara joateko, eta larrabetzuarrok Galdakaon ditugu anbulatorioko eta ospitaleko mediku-zerbitzuak".

Urtarrilaren amaierara arte sinadurak batuko dituzte change.org plataforman, Larrabetzu 2. tarifa-gunean sar dadin eta Leioako unibertsitatera joateko autobus-zerbitzua areagotu dadin.



**ADARVE KAFETEGIA**  
Gosariak  
Plater konbinatuak  
Pintxoak  
**GIRO ONA**  
Sollube, 2 DERIO Tel.: 94 608 95 31

**aldeko**  
hartz klinika  
Tel.: 94 454 15 87  
**Anuska Prieto Aguilar**  
Odontologoa  
Unibe 7, behea  
48160 DERIO (Birkaila)  
-Especialitate guztiak  
zerbitzu bakar batean  
-Aurrekontua doan  
-Especialitatea:  
umeak

**ArtileArtean**  
Mungialde, 4 - DERIO  
946 240 343 / 665 702 751  
www.artileartean.com

## Larrabetzuk 2,6 milioi euroko aurrekontua onartu du 2021erako

Zehatz-mehatz 2.639.389 euro onartu zituzten abenduko udalbatzan, aurreko urtean baino % 9 gutxiago. COVID-19ak sortutako pandemiak erabat baldintzatu du udal-kudeaketa; nolahi ere, Larrabetzuko Udalak azaldu duenez, aurtengo aurrekontuak ardatz hauek izango ditu: oinarritzko zerbitzuei eta kultura- eta kirol-elkarteentzako dirulaguntzei eustea, lehen sektorerako eta gazteek etxebizitza alokatu ahal izateko dirulaguntza berriak ematea eta behar ekonomikoak dituzten familientzako zuzeneko dirulaguntzak handitzea. Euskarara, kulturara, berdinta-

sunera eta gazteriara bideratutako partidei ere eutsiko diete.

Bestalde, jakinarazitakoaren arabera, 5.000 euro zuzenduko dituzte, Udalbiltzarekin batera, euskal sorkuntza sustatzeko kultura-egitasmo bat bultzatzera, eta 14.000 euro, 2030 Larrabetzu Agenda martxan ipintzera. 2021erako inbertsioak, berriz, % 75 murriztuko dira aurreko ekitaldiaren aldean: 118.000 euro guztira. Gobernu-taldearen esanetan, "2020ko amaieran metatutako soberakina erabiliko dugu inbertsio gutxi batzuk egiteko". Euren lehentasunak hauek izango dira: es-

kolako leihoak isolatzen jarraitzea (25.000 euro), udaletxea berritzeko proiektua (metatutako soberakinaren 80.000 euro), euri-urak eta ur beltzak bereizteko egitasmoa (metatutako soberakinaren 70.000 euro), udal-eraikinetan eta informatika-zerbitzuetan inbertsioak egitea (26.000 euro) eta lurak erostea (15.000 euro). "Udalerriak oso lursail publiko gutxi ditu. Baso-politikak martxan jartzeko eta lehen sektoreari laguntzeko, ezinbestekoa da lurra erostea". 2021erako aurrekontua EH Bilduren botoei esker onartu zen; EAJk kontrako botoa eman zuen.

Udaletxea eraberritzeko asmoa du Larrabetzuko Udalak, eta bitartean, herritarrentzako arreta eta irisgarritasuna hobetzeko, udal-zerbitzu guztiak Errebale jauregira eraman ditu; Osakidetza dagoen eraikinera hain zuzen ere. Lehenengo solairuan daude udal-administrazioa, alkate-tza eta udal-teknikariak; eta bigarren solairuan, bake-epaitegia, gizarte-zerbitzuak eta posta-zerbitzua.

Bestalde, Larrabetzuko Udalak Telegram informazio-kanala zuen, baina hori bertan behera gelditu da, eta berria sortu. Kanal berria Larrabetzuinfo da eta 34 684 450 667 telefono-zenbakian dago. Telegram kanala WhatsAppekoari gehitu zaio; azken horrek 250 erabiltzaile baino gehiago ditu. Era berean, udalak BAKQ txartela sustatzeko kanpaina ipini du abian, eta urtarilaren 11z geroztik herritarrek hura eskatu ahal dute udaletxean. BAKQ identifikazio elektronikoko bitartekoa da eta herritarrei aukera ematen die administrazioekin modu telematikoan segurtasun osoz harremanetan jartzeko.

## Larrabetzuko udal-zerbitzu guztiak Errebale jauregira eraman dira



**auzoKide**  
Finken administratzailea

**LORENA GAMBOA AGUIRRE**

Txorisolo 4, behea B **634 410 470**  
48150 SONDIKA [auzokidefincas@gmail.com](mailto:auzokidefincas@gmail.com)

**yedra floristas**

Mikel Zarate, 2 - 48150 Sondika - Bizkaia  
Telefona: 94 453 14 57 - [yedrainterflora@hotmail.com](mailto:yedrainterflora@hotmail.com)

**astikenemotor**  
www.ASTIKENEMOTOR.com

**DERIO - 946 451 781**



## Zortzi milioi eurotik gorako aurrekontua onartu da Derion

Derioko udalbatzak 2021eko aurrekontua onartu du: 8,9 euro guztira, iaz baino % 13,93 gutxiago. COVID-19k sortutako pandemiak baldintzatutako aurrekontua da, eta, "beraz, udal-gobernuak zuhurtasuna eta eraginkortasuna hartu ditu oinarritzat hura osatzeko orduan", azaldu dute prentsa-ohar baten bidez.

Esther Apraiz Derioko alkateak nabarmendu duenez, aurtengo aurrekontua "herritarrei bideratuta dago eta batez ere pertsona zaurgarrien beharrak asetzen saiatzeko osatu da, COVID-19aren pandemiak eragin dituen ondorioak arintzeko". Bestalde, gaur egungo testuinguruari hauek gehitu behar zaizkio: diru-bilketak behera egin izana eta, Udalkutxaren 2020ko aurre likidazio negatiboaren ondorioz, 42.000 euro itzuli behar izana. Era berean, aurtun Udalkutxatik 340.000 euro gutxiago jasotzea espero da.

Gizarte-larrialdietako laguntzetarako 10.000 euro erabiliko dira, eta Elikagaien Bankurako diru-partidara 10.000 euro gehiago bideratuko dira, produktu freskoak eskaintzen jarrai dezaten. Merkataritza eta ostalaritza suspertzea ere lehentasuntzat izango du udalak, eta herriko elkarreentzako dirulaguntzei eutsiko diete, kultura- eta elkarre-jarduera berreskuratzeko. "Berritasun gisa, COVID-19 izeneko diru-partida sortu da. Hasteko, 100.000 euroko diru-partida izango da eta pandemiak eragindako gizarte-beharritzanei aurre egiteko erabiliko da. Behar izanez gero, diru-partida handituko da", esan du Apraizek. Era berean, 60.000 euro ipiniko dira Udal Enplegu Plana egiteko eta Txorierriko Mankomunitateari egin beharreko diru-ekarpena handitu



da gizarte-zerbitzuak eta EGAZen eskaintza indartzeko.

Bestalde, herritarrek aukeratutako lau egitasmo sartu dira aurrekontuaren barruan: bizikleta-sarea garatzea, txakur guneak hobetzea, Eskolara lagunakaz proiektua eta udal-estetika hobetzea. Egitasmo horietara guztira 100.000 euro bideratuko dira. "Herritarrek gai publikoetan aktiboki parte hartzea behar-beharrezkoa da, baita politika egiteko modu berriaren aldeko apustua ere".

EAJk aurrekontuaren aldeko botoa eman zuen eta PSE-EE eta EH Bildu alderdiak abstenitu ziren. Udal-gobernuaren hitzetan, oposizioko alderdi guztiek izan dute aurrekontuaren negoziazioan parte hartzeko aukera. Horri lotuta, elkarriketarako eta negoziatorako konpromisoa berretsi dute, eta Apraizek oposizioaren jarrera eskertu du. "Zuzenketak hiru alderdi politikoen artean eztabaidatu dira eta akordio onuragarriak hartu dira Deriorako".

## Sondikak ia 5,5 milioi euroko aurrekontua izango du aurtun

Zehatz-mehatz 5,456 milioi euroko aurrekontua onartu dute 2021erako; iaz baino 17.400 euro gutxiago. Sondikako Udalak adierazi duenez, lehentasuna pertsonak dira. Horrela, 30.000 euro bideratuko dituzte gizarte-larrialdiko laguntzetara eta, beharrezkoa izanez gero, diru-partida hori handitu egigo dute. Era berean, 30.000 euro zuzenduko dituzte herriko langabeentzako ikastaroetara eta haien kontratazioetara. Bestalde, 35.000 euroko laguntza zuzena emango diete herriko ostalariei eta merkatariei, eta 30.000 euro ipiniko

dituzte bonu-kanpainaren bidez herriaren kontsumitzea bultzatzeko.

Udalak inbertsioak egiteko asmoa ere badu: LED argiak aldatzea, mugikortasun-bide berriak eta bizikletak aparkatzeko guneak atontzea (6.000 euro), udal-kartelgintzako euskarriak berritzea, Larrabarrena parkean komun publikoa ipintzea eta hango kirol-gunea konpontzea eta eraikin publikoetan hobetze-lanak egitea. Udalak jakinarazitakoaren arabera, EAJk aurrekontuaren aldeko botoa eman du, eta EH Bilduk, kontrako.



- Plater konbinatuak  
- Ogitaratekoak  
- Kaxolak

**BIZKARGI KAFETEGIA**  
Euskal Herria Kalea  
48160 - Derio (Bizkaia)  
94 454 16 55



**ELORRIETA  
INSTALACIONES**

EITXE- ETA INDUSTRIA-ELEKTRIZITATEA

Urbe kalea, 12. behea Derio 48160  
94 454 03 86  
**639 57 98 48 - 639 58 25 47**



**Goiri'78 s.l.**  
Zerbitzu ofiziala



Izarza Pol.  
48150 Sondika  
Bizkaia

**94 453 25 15  
94 453 39 31**



## Iturregi, Athleticen emakumezkoen taldeko entrenatzaile berria

Athleticek Angel Villacampa emakumezkoen taldeko entrenatzaile kanporatu egin du eta bere ordeza Iraia Iturregi loiuztarra izendatu du. "Oso egun zoriontsua da niretzat, pribilegioa baita Athleticen entrenatzaile izatea", esan zuen Iturregi aurkezpenean. Nesken taldea ez da aspaldian fin ibili, eta, pozik agertu arren, loiuztarrak beste momentu batean nahiago zukeen Athletic entrenatzen hasi, denboraldi hasieran, alegia. "Hala ere, askotan aukera ez da unerik onenean heltzen eta errealtateari aurre egin behar zaio aurpegira begiratzat. Talentua duen taldea gara, agian aspaldian bere alderik onena ematen ibili ez dena, baina buelta ematea espero dut. Egindako lanean konfiantza izan behar dugu".



## Wifi publikoa, Zamudion

Zamudioko Udalak azaldu duenez, wifi sarea hainbat lekutan egongo da eskuragarri, hala nola Gaztestazioan, liburutegian, Agirre Lehendakari plazan eta Oiz, Arbolantxa eta Aresti kaleetan. "Wifi sare publikoari esker, zamudioztar guztiak doan eta modu seguruan sartu ahalko dira Internetera. Gainera, datu mugikorraren tarifek dakarten ahalegin ekonomikoak eten digitala eragin dezake eta, sare publikoaren bidez, eten digital hori ere murriztuko da".

Wifi publikoa erabiltzeko, wifi sarean aukera hautatu beharko da gailu mugikorretan, eta TUWIZAMUDIO sarea topatu. Sare hori aukeratzat gero, Zamudiori buruzko informazioa irakurtzeaz gainera,

ADI Zamudio aplikazioa deskargatzeko gunera jo ahalko da. Atariak automatikoki antzemango du gailu mugikorraren konfigurazio-hizkuntza: 14 hizkuntza daude. Internetera sartzeko, klik egin beharko da, erabilera-baldintzak onartu, eta gizarte-sareen bidez edo Free aukeraren bidez sartu; ez da klaberik erabili beharko.

Bestalde, zerbitzua modu orekatuan erabiltzen dela bermatzeko, wifi publiko egunero konektatu beharko da eta ezin izango da deskarga masiborik egin. Sarea Wifinova Leoiako enpresa ipintzen dabil. Udalaren esanetan, enpresa horrek zerbitzua ematen die Metro Bilbaori eta hainbat udalerriri eta enpresari.

**Alaia**  
fruta-denda  
Etxez etxeko zerbitzua  
Bertoko produktuak  
Telleri 5  
48170 Zamudio  
94 485 05 85

**HARATEGIA**  
**ALBERTO**  
Arbolantxa, 4  
T: 94 452 08 25  
48170 ZAMUDIO

**ama**  
**taberna 3**  
Leizaola plaza, 7 - behea (ZAMUDIO)  
94 655 93 69

Familia osorako  
kalitatezko arreta,  
zure esku  
ZERBITZU BERRIAK  
Logopedia  
Podologia  
Kiropraxia  
clínica dental  
**ZAINDUZ**  
hortz klinika  
Txorierri etorbidea, 9 - Lortze 1 Arteaga eraikina | 48160 DERIO  
94 454 01 01 | 947 79 54 45  
info@dentazainduz.com | www.dentazainduz.com

**Nire Autoocasion NA**  
**IMPORTAZIOA ETA**  
**SALMENTA**  
MUNGIALDE ETORBIDEA, 3 48160 DERIO-BIZKAIA  
Mobiak: 686 97 06 41 - 649 16 77 12  
Telefonoa-Fax: 94 454 51 92  
www.nireautoocasion.com | info@nireautoocasion.com


**LOREGARBI**  
**GARBIKETA ZERBITZUAK**  
Garbi-ikusiak, orokorrean  
Autokomunitateak  
Mantze-zerbitzua garbi-ikusiak  
Bulegoak eta lokalak  
Olinpiar enpresa garbiketa  
Ikastetxeak  
Zabere bilaketa  
Besaide Plaza, 1 - Bº Aldekone  
48160 DERIO (Bizkaia)  
loreagarbi@euskalnet.net  
Tel: 94 406 49 92  
656 712 443  
Fax: 94 406 49 93



Orrialde honetan, Itsasne Zubiri sondikoztarrak konfinamenduak inspiratutako margolan-saila aurkeztuko digu.



Hamaika ezaugarri dakartzkigu aldaketak. Beldurgarria ematen duena polita ere izan daiteke! Ikuspegia gure esku dago; har dezagun aldaketa ikasketa koloretsu gisa.



en✓iser

Kale garbiketa | Hondakinen bilketa eta garraioa | Ur eta estolda sareen mantentze lanak | Hiri-altzarien mantentze lanak | Lorezaintza zerbitzuak | Eraikin eta lokalen garbiketa | Hondartzen garbiketa zerbitzuak | Garbiguneen kudeaketa eta mantentze lanak | Lurzoruen deskontaminazio lanak | Ingurumen-aholkularitza | Beste zerbitzu batzuetarako, galdetu.

Ibáñez de Bilbao, 3. 2. solairua, 48001 BILBAO

TEL. 94 424 38 34



# "Bakarriketa interpretazioaren alderik zailena da"

NEREA GARMENDIA | aktorea

Beraren aurpegia *Vaya Semanita* saioan ezagutu genuen eta, harrezkero, Nerea Garmendia aktoreak ibilbide oparoa izan du bai telebistan, bai antzerkian. Gipuzkoarra Madrilén bizi da, baina Euskal Herria gogoan du. Horregatik, pozik dabil etxera lanera etorri behar duenean. Eta Gabonetan gertatu zitzaion, Alazne Etxebarriarekin batera Derioko Gurea Aretoan *Dos vascas y un destino* bakarriketa aurkeztu zuelako. Txorierrin primeran pasatu zutela esan digu.



## Zer da *Dos vascas y un destino*?

Duela gutxi estreinatu dugu eta laster, martxoan 6an, Berangon izango gara. Bizitzari buruzko bakarriketa laburrak dira, binaka. Gure akatsei buruz hitz egiten dugu, norberaren burua onartzeari buruz. Eta Alaznek bere ikuspuntua ere adierazten du. Euskaldun biren arteko lehia da (kar-kar). Egoera ez da ona eta jendea entretenu nahi dugu.

## Ikuskizuna berria da. Zelan doa?

Ondo, pozik gaude. Apurka-apurka aldatu egiten da. Gustatzen zait gaurkotatzen eta gauza berriak txertatzea; beraz, ikuskizuna ez da inoiz berbera izaten. Izan ere, ni ere ez naiz berbera ikuskizun gutietan.

## Zelan Derion?

Zoragarria izan zen. Antzokia txikia da, baina oso erakargarria. Jendeak berotasuna erakutsi zigun arratsalde osoan. Barre egiteko gogo zuten. Askotan esaten da euskaldunok hotzak garela, baina ez nago ados: umorezko ikuskizunetan etengabe egiten dugu barre. Hain genbiltzan gustura, ezen ez genuen saioa bukatu nahi: hasi ginen inprobisatzen, barre-atakea hartu genuen.... Primeran pasatu genuen publiko gurekin zegoelako. Eta publikoak laguntzen duenean, magia da. Arazoa etorri zen ikuskizunaren ondoren, Madrilén erori zen elurteak bete-betean harrapatu ninduelako. Etxe bat alokatuta nuen bertan, baina hurrengo egunean utzi behar nuen; Burgosen beste etxe bat alokatu nuen, baina elurtea dela-eta jabeak esan zidan

berak behar zuela. Beraz, Madrilera joan nintzen txakur birekin eta azkenean, 10 ordu pasatu eta gero, etxera iritsi nintzen. Eromena izan zen: Burgosetik Madrilera ez zegoen autorik, apokalipsia zirudien.

## Alazne Etxebarria duzu lankidea. Zelan sortu zen ikuskizuna egiteko ideia?

*Alli abajo* telesaioan biok hartu dugu parte, baina ez aldi berean, eta gerora ezagutu genuen elkar, Ttipia enpresari esker. Bakarriketa elkarrekin egin genuen eta gure artean kimika sortu zen. Eta hori nabaritzen da agertokian.

## Bakarriketa zeuek idatzi duzue? Zelan prestatu duzue ikuskizuna?

Duela urte bi hasi nintzen bakarriketak egiten. Garai hartan beste pertsona batek idazten zizkidan bakarriketak eta

*Gustatzen zait saioetan gauza berriak txertatzea; beraz, ikuskizuna ez da inoiz berbera izaten"*

*"Derion primeran pasatu genuen, jendea gurekin zegoelako. Eta hori gertatzen denean, magia da"*



nik ukituak ematen nizkion testuari. Denboraren poderioz, konturatu nintzen idazteko gauza nintzela eta horri ekin nion. Azken batean, testua norberak antzeztan badu, hobe da norberak idaztea, norberak ezagutzen duelako ondoen norberaren umorea.

#### Zelan bakarriketen munduan?

Bakarriketak interpretazioan dagoen alderik zailena dira. Telebistan eta zinean, esate baterako, taldeko lana da, eta eszena errepikatu egin ahal duzu. Bakarriketan, aldiz, bakarrik zaude eta ezin duzu atzera egin. Eta gainera barrea eragin behar duzu. Erabateko arreta behar duzu ikuskizuna egiteko. Oso kritikoa naiz neure buruarekin: saio guztiak grabatzen ditut eta etxean entzuten ditut, nola egin dudana jakiteko.

## Ekintzailea

Nerea Garmendia (1979) Beasainen jaio zen baina 10 urterekin Donostiara joan zen bizitzera. Gaztetan jakin zuen aktorea izan nahi zuela. "Hamasei urte nituela, erabakia hartu nuen. Aitak ez zidan jaramon handirik egin, baina amak, bai, ordea. Berak badaki zerbait egin nahi dudanean, nekez kentzen zaidala burutik. Epea jarri nion neure buruari: aktorea izaten 25 urte bete arte saiatuko naiz eta ordurako lortzen ez badut, Enpresa-ikasketak ikasiko ditut", esan digu.

"Zortea izan eta lan gogorra egin eta gero", ibilbide oparoa izan du gipuzkoarrak. Telebistan *Vaya semana* saioak eman zuen ezagutzera eta harrezkero, besteak beste *La Reina del*

*Sur*, *Los hombres de Paco* eta *Alli Abajo* telesaioetan hartu du parte. Hainbat antzezlan ere egin ditu. Garmendia oso ekintzailea da. "Askotan galdetzen didate ea ametsik dudana. Eta beti erantzuten dut ezetz. Izan ere, ametsen bat badut, hurrengo egunean jartzen naiz martxan amets hori betetzeko edo, gutxienez, saiatzeko".

Eta hori egin zuen aktorea izateko: hemeretzi urte zituela Madrilera joan zen ikastera. "Gero Euskal Herrira itzuli nintzen, baina 2008an Madrilera geratu nintzen. Han egotea beharrezkoa da aktoreontzat, industria bertan dagoelako. Gustura nago, baina Donostia behar dut: mendiak, itsasoa, umorea, kultura, lagunak, janaria... Nire bihotzean eta nortasunean daude. Horregatik, etxean lan egin behar dudanean, poz-pozik ibiltzen naiz".

#### Zer gertatzen da txisteak barrea eragiten ez duenean?

Hori ez zait niri inoiz gertatu (kar-kar). Ez, txantxa alde batera utzita, jendeak barre egiten ez badu, ez dut porrot moduan hartzen eta aurrera jarraitzen dut. Saioak ondo pasatzeko egiten ditut. Apur bat kamikazea naiz –agian "komikazea" esan beharko–.

#### Koronabirusak asko aldatu du zure ogibidea?

Pena ematen dit, antzokiaren edukiera izugarri murriztu dutelako, gehiegi. Eta jendea beldur da, beldurra sorraz

digutelako. Jendea zintzo etortzen da antzokietara eta neurriak betetzen dituzte. Barreek maskarak gainditzten dituzte eta publikoaren sentimenduak agertokira iristen dira. Gauzak aldatu egin dira, noski, baina egokitu gara.

#### Zertan zabilta gaur egun?

Bakarriketa hau laburra da, ordu erdikoa. Horretan oinarrituta ordu bateko bakarriketa nabil prestatzen eta uste dut udaberriko prest egongo dela. Beste proiektu pare bat ere baditut, baina oraindik ezin da ezer esan, gauzak egun batetik bestera aldatzen direlako.

**tik tak**

EGUNEKO MENUA  
lehenengo platera  
bigarren platera  
postrea  
ogia  
odarra

**9€**

**T: 94 454 55 55**  
Bestorrene 5, Behea  
48160 DERIO

**TURREGOITI**  
**JATETXEA**

Laurietako etorbidea, 27  
48180 Lolu-Bizkaia  
T-Faxa: 94 453 24 40  
restauranteauregoiti.com

**LEJARRRENE JATETXEA**  
Garaioetza auzoa, 12 • LEZAMA • T: 94 455 65 46

**elekma**

IRRATZEREN BAT DUTEN ETXETRESNA ELEKTRIKO BERRIK  
TELEBISTAK ETA ETXETRESNA ELEKTRIKO TOSAK

lehenengo markak • Prezioak onenak  
**BOSCH, SIEMENS, BALAY**

Txanetxe etorbidea, 25-31 N • 48180 Lolu  
T: 944 539 232  
www.elekma.es

**ZAMUDIO-DERIOKO LURLANGILEEN ETXEA**  
Santi Mami auzoa, 1  
Tel.: 94 454 10 06  
Faxa: 94 454 12 15  
48170 Zamudio (Bizkaia)

**SANTI MAMI**  
ALAJATIA  
Elena Lombana (elk.553)  
Tel.: 944 541 377 - Faxa: 944 541 215  
10:00-14:00 / 16:00-19:00  
(hitzordua eskatu behar da)



Imanol Aparicio Rodriguez 21 urteko derioztarra da. Bizitza duela bost urte erabat aldatu zitzaion, hankako minarekin hasi zenean eta, hainbat proba egin ondoren, sorbaldan tumore bat topatu ziotenean. Ebakuntzak egin arren, gazteak hanken mugikortasuna galdu zuen eta medikuek esan zioten denboraren poderioz gorputz osoarena ere galduko zuela. Hala ere, Bartzelonan hartzen dabilen tratamendu esperimental berri bati esker, inongo laguntza barik oinez ikusi ahal dugu herriko kaleetan.

*t/a: Itxaso Marina Ondarroa*

Hamasei urteko beste edozein gazte moduan, Imanol institutuan zebilen eta futboleko jokatzaren. "Eskuineko hankako minarekin hasi nintzen, giharraren atzean. Urtebete eta erdian hainbat proba egin zizkidaten, baina ez zuten ezer topatzen eta esan zidaten beharbada txarto osatutako zuntz-haustura zaharra izan litekeela. Minarekin jarraitzen nuenez, sorbaldako erresonantzia egin zidaten azkenean eta ikusi zuten tumore bat nuela. Tumorea hedatuta zegoen bizkarrezurrera, hezur-muinera, sakrora eta burura. Goia behera etorri zitzaidan. Egia esateko, ez nekien ezta zer pentsatu ere".

Tumorea oso alde "zail" batean du eta horregatik ezin izan diote osoa kendu. "Bederatzi hilabetea hiru ebakuntza egin zizkidaten –hiru hilabetezko tartea izan zen ebakuntza batetik bestera–, bizkarrezurretik, hezur-muinetik eta sakrotik ahalik eta tumore-zati handiena kentzeko; hala ere, ezin didate buruko ebakuntzarik egin, nahiz eta hangoa txikia izan". Oso ebakuntza gogorrak izan ziren, eta ondoren ZIUko (Zaintza Intentsiboen Unitatea) egunak eta ospitaleko egonaldi luzeak etorri ziren. "Errehabilitazioa egin behar izan nuen, eta

## "Poz-pozik nago, ez nago

IMANOL APARICIO I

tratamendu esperimental hartzen dabil



# elako inoren beharrea"

hezur-muinean hiru erradioterapia-saio hartu. Oso gogorra izan zen, fisikoki zein psikologikoki. Ospitalean hainbeste denbora emateak erabat sumindu ninduen... Makuluak erabilia ibiltzen nintzen, baina, bueno, pixkanaka-pixkanaka hobera egin nuen. Institutuan ere nahiko lagundu zidaten ikasten jarraitu ahal izateko".

Aldizka mediku-azterketak egin arren, ahal zuen neurrian, Imanolek bere bizitza eta ohiturak berrartu zituen. "Urte bi beranduago, 2018ko hasieran, txakurrarekin korrika nengoela zerbait arraro nabaritu nuen hankan, sastada bat, eta lurrera erori nintzen. Handik aurrera, sastada gehiago izan nituen, hari eta hanken mugikortasuna erabat galdu nuen arte". Tumorea handituta zegoen eta medikuen aurreikuspenak ez ziren batere itxaropentsuak. "Amari esan zioten ez zutela niri nola lagundu, ez zegoela zer egiterik: gorputzaren goiko aldearen mugikortasuna ere pixkanaka-pixkanaka galduz joango nintzen, eta itsu ere geratu. Hasieran niri ez zidaten ezer esan, baina banekien zerbait gertatzen zela eta esan nien mesedez niri egia esateko... Oso kolpe latza izan zen; ez nuen ezer jakin nahi, ezta inoren berri-rik izan ere".

## Aproposa ikerketarako

Itxaropena guztiz galduta zuen Imanolek. "Alabaina, handik hilabete batzuetara Bartzelonako Vall d'Hebron ospitaletik deitu zidaten. Medikuei ebakuntza egiteko baimena sinatzearekin batera, kendutako tumore-zatiak beste ospitale batzuetara ikertzera bidaltzeko baimena ere sinatu zuen amak. Esan zidaten bertan tratamendu esperimental bat egiten zebiltzala eta beharbada aproposa izan nintzekeela ikerketan parte hartzeko. Ez nuen zer galdu, eta baietz erantzun nien. Proba

batzuk egin zizkidaten eta tratamendua uztailan hasi nuen". Imanolek egunean pilula bi –berak ez daki zehatz-mehatz zein motatako medikazioa den– hartzen ditu eta Bartzelonara hilean behin joan behar du probak egitera. "Odol-analisiak eta erresonantziak egiten dizkirate tumorea nola dagoen ikusteko". Gazteak tratamendua hasi eta hilabete gutxira berreskuratu zuen itxaropena. "Bartzelonan nengoen, hotelean, eta bat-batean oinak mugitzen hasi nintzen. Hori poz handia! Ezin nuen sinetsi!".

Tratamendua 2018ko uztailan hasi zuen eta gaur egun arazo barik ibili daiteke. "Hobekuntza ikaragarria izan da: gorpil-aulkia erabili nuen lehen eta orain laguntzarik gabe ibili naiteke. Gurutzetako medikuak ere harrituta daude; ez dute sinesten. Ni oso pozik nago: ezin dut, adibidez, korrika egin, baina bizitza normala egin dezaket gutxi gorabehera". Imanol egunean-egunean bizi da eta ez du gehiegi pentsatzen

*"Tumorea momentuz geldirik dago eta guztiok gaude pozik emaitzekin"*

tratamenduaren epe luzeko eraginkortasunari buruz. "Tratamendu esperimental da eta medikuek ere ez dakite zer gertatu litekeen. Tumorea momentuz geldirik dago eta guztiok gaude pozik emaitzekin".

Imanolen lehentasuna ondo egotea da gaur egun. "Poz-pozik nago, autonomia naizelako eta ez nagoelako inoren beharrea: nik bakarrik hartu ahal dut dutxa, txakurra kalera atera, igeri egin, aitari leku batera edo bestera lagundu ahal diot... Bestetik, musikari lotutako zerbait ikastea gustatuko litzaidake; Derioko Nekazaritza Eskolan hasi nintzen, baina utzi behar izan nuen, ezin bainuen esfortzu fisikorik egin". Etorkizuna edozein izan da ere, derioztarrak argi du egunez egun egingo duela aurrera.





**POLITEKNIKA IKASTEGIA**  
**TXORIERRI**  
S.COOP.  
Centro de Educación Secundaria y Formación Profesional  
Larabide Heziketa eta Enjeneria Informatizatuak Ikastetxea

Unibertsitate Itala Kalea, 1  
48100 - DEPIO  
Tel.: 94 403 40 60 | info@txorierri.net  
Fax: 94 403 40 61 | www.txorierri.net

Eusko Jaurlaritzak diruz-lagundutako ikastetxea

**BATXILERGOA**

- Zientziak Batxilergoa

**ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK**

- Mekanizazio Teknikari

**GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK**

- Fabrikazio Mekanikoko Diseinuko Goi-mailako Teknikari
- Produzio Programatzeko Goi-mailako Teknikari
- Automatizazio eta Robotika Industriako Goi-mailako Teknikari
- Telekomunikazio eta Informatikako Sistemako Goi-mailako Teknikari
- Salmenten eta Merkataritza Esparruen Kudeaketako Goi-mailako Teknikari
- Ingurumen Hezikuntza eta Kontrolako Goi-mailako Teknikari

**EUSKO JAURLARITZA** **GOBIERNO VASCO**

ENJOINAKO GARAPEN  
ETA ADARTEKATZA SAILA

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO  
ECONOMICO E INFRAESTRUCTURAS





**40 urte, milaka txori**

*"Bartzelonan nengoen, hotelean, eta bat-batean oinak mugitzen hasi nintzen. Hori poz handia! Ezin nuen sinetsi!"*



## “Irrien lagunak” aldizkaria, 2-3 urteko umeentzat

2-3 urteko umetxoak ikastetxeetan izena emateko aurrematrikulazio epea urtarilaren 18tik 29ra artekoa izan da. Hori dela eta, Txorierriko Mankomunitateak “Irrien lagunak” aldizkaria banatu die adin horretako seme-alabak dituzten gurasoei. (Guztira 326 ale). Aldizkari hau banatuta zenbait ideia zabaldu nahi ditugu:

–D ereduan matrikulatzeak daukan garrantzia azaldu nahi da, izan ere horrek tresna egokiak emango dizkio umeari, euskara bizitzako arlo guztietan erabili ahal izateko.

–Zenbat eta hizkuntza gehiago jakin txikitatik, erraztasun handiagoa izango du ikasleak ikasketa prozesuan.

–Etxean ere euskara bultzatzea oso garrantzitsua da, umeak euskara naturaltasunez erabili dezan, ezinbestean eskolarekin lotu barik.

–Aldizkariak proposamen dibertigarriak lantzeaz gain, aukera ematen du umeek irakurtzeko zaleztasuna hartzeko, balio jakin batzuetan hezteko eta euskara hobetzeko, besteak beste.



## “Gurot”, euskal galderen unibertsoa; sari banaketa

GUROT aplikazioa, Txorierriko Mankomunitateak Bizkaiko beste udalerri batzuekin batera sortutako programa informatiko bat da, 12-17 urteko gazteei zuzendutakoa, hain zuzen. Programa honen helburua, gazteek aisialdian euskara erabili eta euskaraz jolastea da eta horretarako gaur egun 1.000 galderatik gora daude sartuta aplikazioan, 8 gai desberdinetan banatuta.

Azken bi urtetan banaka jolastea bultzatu den arren, 2020an Mankomunitateak beste pauso bat egin nahi izan du eta euskararen erabilera areagotzeko, hiru edo lau pertsonaz osatutako taldeko txapelketak sustatu dira. Horiek horrela, azaroaren 23tik abenduaren 18ra, Txorierriko

18 talde aritu dira norgehiagoka. Puntu gehien ateratzen zituzten bi taldeek tablet bana eskuratzea zuten jokoan. Talde irabazleak honako hauek izan dira: Larra-betzuko “Zatzaizkigute taldea” (Amaia Rodriguez, Ekaitz Urgoiti eta Iker Melendo), eta Loiu, Sondika, Zamudio eta Lezamako gazteek osatutako “Legens taldea” (Eneko Dapena, Aner Fernandez, Mikel López eta Aimar López).

Sari banaketa urtarilaren 20an izan zen Txorierri institutuan, eta bertan Esther Apraiz eta Jon Ander Aurrekoetxea Derioiko eta Lezamako alkateen eskutik jaso zituzten sariak.

Zorionak guztiei eta jarraitu euskaraz jolasten, gozatzen eta ikasten!



# Bideojokoekiko mendekotasuna, nerabeen artean areagotzen ari den arazoa



## NOLA DETEKTATU NAHASMENDUA?

Baliteke seme-alabak ordu gehiegi ematea bideojokoetan jolasten eta nahasmenduaren sintomarik ez izatea, baina hori prebenitzeko neurriak hartzeko garaia izango da. Nahasmendua dagoenean, sintoma hauetakoren bat edo bat baino gehiago emango da intentsitate handiz:

- Jokoan emandako denbora kontrolatzeko ezintasuna.
- Denboraren nozioa galtzea.
- Errendimendu akademikoaren jaitziera.
- Isolamendu soziala.
- Haserrea piztea eta agresibitatea areagotzea, jokoaren denbora mugatzeko ahaleginekin lotuta. Agresibitate hori beste esparru batzuetara hedatu daiteke.
- Jolasa eguneroko bizitzaren ardatz nagusi gisa ezartzea, eta betebeharretan eta beste jarduerara batzuetan eragitea.
- Joko-gastuak ordaintzeko dirua lapurtzea.

## NAHASMENDUA PREBENITZECO JARRAIBIDEAK

Bideojokoaren erabilera arazo bihurtu ez dadin, gurasook honako hauek hartu behar ditugu kontuan:

- Jolasteko denbora mugatzea; garrantzitsua da eurekin negoziatzea jolasteko denborak zentzuz erabiltzea. Hori lortzeko, gurasoen kontrolerako tresnak lagungarri izango zaizkigu.
- Euren adineko umeei elkarrekintza sustatzea bizitza errealean.
- Ikasgelako lana eta eskolako zereginak egunean daramatzatela gainbegiratzeko.
- Gustuko dituen eskolaz kanpoko jardueretan parte hartzea animatzea.
- Aisialdiko jarduerak alternatiboak sustatzea.
- Beharrezko orduak lo egitea.
- Familia-harreman osasungarriak sustatzea eta adingabeekin jolasteko uneak partekatzea.

Arazoak bere horretan jarraitzen badu, gogoan izan LAGUNTZA PROFESIONALA eskatu ahal duzula.

*M. Blanco, Mankomunitateko SIPeko psikologoa*

Gure gizarte- eta kultura-ingurunean, 10 eta 18 urte bitarteko seme-alabak dituzten guraso gehienek artikulatu honen arazoak ulertuko dituzte. Adin horiek gutxi gorabeherakoak dira, arazo hori lehenago hasi baitaiteke eta adin-nagusitasunetik haratago iraun baitezake.

## ZER DIRA lineako bideo-jokoak?

Milaka jokalarik, aldi berean, mundu birtual batean elkarrenergiteko aukera ematen duten bideo-jokoak dira. Jokalariak pertsonaia edo *avatar* bat sortzen du, eta beste pertsonaia aurkako borroketan edo misio desberdinak eginez maila eta esperientzia handitzen ditu.

## ZEINTZUK DIRA online jokorik eza-gunena 2020an?

1. League of Legends, 98 milioi jokalariditu. 2009an merkaturatu zuten.
2. Fortnite, 85 milioi jokalariditu eta 2017tik dago merkatuan.

3. Counter Strike, 46 milioi jokalariditu.

Hiru horiek doako sarbidea dute, baina horrelako makina bat joko aurki ditzakegu, aldezturik erosi behar ditugunak: Fifa, Grand Theft Auto, Minecraft, etab.

## ZER DA bideo-jokoaren adikzioa?

DSM 5 delakoaren (Ameriketako Psikiatria Elkartearen Buruko nahasmenduen buruzko Diagnostiko eta Estatistika Eskuliburua) arabera, dirurik gabe jokatzeko on line jokoekiko MENDEKOTASUNA da. Bere funtsezko ezaugarria da bideojokoetan ordu asko ematea eta behin eta berriz parte hartzea. Parte-hartze hori taldean izaten da sarritan.

OMEk lehen aldiz aitortu du "bideojokoekiko adikzioa" jokabide-adikzioen esparruko NAHASMENDU ADIKTIBOA dela. Funtsezko ezaugarria da bideojokoetan behin eta berriz eta etengabe parte hartzea ordu askotan, normalean taldean, eta horrek klinikoki esanguratsua den kaltea edo ondorengo dakar.



# “Komunitatea ezinbesteko tresna da gizarteratzerako”

Emaus Gizarte Fundazioaren arreta osoko programa da PAI Bitartean eta bere baitan gizarteratzerako eguneko zentroa zabaldu zen azaroaren 30ean, Derion. Zentroak gizartetik kanpo dauden edo egon daitezkeen pertsonak artatzea du helburu, laguntza indibidualizatuari esker, beraien garapena eta gizarteratzea bultzatzeko eta bai bizi-kalitatea hobetzeko. Pilar Garcia Gonzalez PAI Bitartean programaren zuzendaria da eta Derioko eguneko zentroaren eginkizunaren berri eman digu.

*t: Itxaso Marina Ondarroat*

Garciak azaldu digunez, PAI Bitartean Bizkaiko Foru Aldundiarekin lankidetzan – Enplegua, Gizarteratzea eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren bidez– martxan ipinitako egitasmoa da eta lau zutabe ditu: Gamizeko egoitza-zerbitzua, pertsonak euren etxean bertan artatzeko zerbitzua, familientzako zerbitzua eta gizarteratzerako Derioko eguneko zentroa. “Helburua da gizartetik kanpo dauden edo egon daitezkeen lagunei arreta indibidualizatua eman, euren bizi-kalitatea hobetu dadin eta ahalik eta autonomia handiena eskuratu dezaten. Horretarako, Derioko zentroa erabiltzaileen eta derioztarren arteko topagunea izatea nahi dugu, eta hainbat ekintza egin, erabiltzaileak eta herritarrak harremanetan ipintzeko”.

Eguneko zentroak 15 pertsona hartzeko lekua du, baina COVID-19a dela eta edukiera % 50 murriztu da. Garciaren esanetan, zenbait aukera aztertuko dituzte zerbitzua lagun guztiei eman ahal izateko. Zerbitzuaren erabiltzaileak 18 urtetik gorako gizonak eta emakumeak dira. “Mungialdeko, Txorierriko, Leioako eta Erandioko bizilagunak artatzen ditugu eta zerbitzura Bizkaiko Foru Aldundira bidaltzen ditu. Baliabide ekonomiko gutxi izan dezakete, edo bat ere ez, eta kasu gehienetan ez dute laguntza-sarerik: ez familiakorik, ez gizartekorik. Halaber, batzuek adikzioaren bat edota buruko gaitza izan dezakete”. Zentroaren zuzendariaren iritziz, ezabatu egin behar dugu uste hau: pertsona bat kalean badago, bere erruagatik da. “Izan ere, bizitzan lauzpabost zorigaitz gogor gertatuz gero, gutariko edonor gizartetik kanpo geratu gintezke, laguntza-sarerik izan ezean. Beraz, gizar-



tertik kanpo daudenei begirunez begiratu behar diegu. Baita ausardiaren ikuspuntutik ere, zerbitzura etortzea eta laguntza eskatzea ez baita erraza. Gainera, hala eta guztiz ere, indar handia dute aurrera jarraitu ahal izateko, eta zauriak sendotzeko. Eta hori ere ez da erraza. Dena edo ia dena galdu dute eta orain, pandemiaren ondorioz, zailago izango dute, esaterako, lana edota alokairuko etxebizitza lortzea”.

Zerbitzua batez ere gizonek erabiltzen dute, baina emakumeak ere badaude eta azken horien egoera askoz zailagoa da. “Emakumea izatearen zama gehigarria dute. Batzuek oso egoera latzak bizi izan dituzte, hala nola tratatu txarrak edota seme-alabak galdu izana, eta zailago dute aurrera egitea, laneratze- eta gizarteratze-aukera gutxiago dituztelako eta estigma handiagori egin behar baitiote aurre. Eta, bestalde, zer esanik ez, kalea askoz ankeragoa da eurentzat”. Esandako hitzen ha-

rira, zerbitzuaren arduradunek ahalegin berezia egiten dute arreta generoa kon-tuan hartuta eskaintzeko. “Inportantea da emakumeek euren lekua izatea, kezkak eta interesak modu lasaian eta epaituta sentitu barik adierazi ditzaten eta, gehienak gizonak izanik, gehiengoaren interesei euren beharrak estali ez ditzaten”. Garciak aitortu digu ez dakiela gizartetik kanpo emakume ala gizon gehiago dauden. “Hala ere, badakit gure zentrori gizon gehiagok jotzen dutela. Horri lotuta, lanean entzuna dut emakumei gehiago kostatzen zaiela laguntza eskatzea eta pairamen handiagoa dutela; hortaz, gu-txiago ikusten dira”.

## Erabilera anitzekoa

Derioko eguneko zentroa erabilera anitzeko gunea da eta, besteak beste, hurrengo zerbitzu hauek eskaintzen dizkie erabiltzaileei: sukaldea, dutxa, arropa gar-



bitzea, zaindegia eta botikak hartzeko guinea. Lantaldea osatzen dute gizarte-langile batek, gizarte-integratzaile bik, psikologo batek, hezitzaile bik, egunerokotasunean laguntzeko beste integratzaile batek eta garbiketako langileek. "Diziplina anitzeko lantaldea da, erabiltzaileen beharrian guztiei erantzuna eman ahal izateko; hau da, bizitzaren arlo guztietan laguntzen diegu: esparru emozionalean, eguneroko jardueretan, komunikazio-gaitasunak eta enplegarritasuna hobetzen, errutinak hartzen, laguntza-sarea sortzen... Bizi-helburuak lortzen laguntzen diegun arren, guk ez dugu inongo ibilbide-orririk ezartzen: erabiltzaileek eurek hartzen dituzte erabakiak eta guk erabakitakoa errespetatzen dugu".

Aurreko lerroetan aipatutako zerbituez gainera, eta bizi-helburu horiek lortzen laguntzeko, zentroak hainbat

tailer egiteko aukera ere ematen du (edo laster emango du): sukaldaritza, irratia, Internet, antzerkia, autolaguntza, osasuna, ariketa fisikoa eta estimulazio kognitiboa, batzuk aipatzearren. "Beste aldetik, erabiltzaileentzat ez ezik, komunitate osorako ere nahi dugu onuragarriak izan, eta gure artean harreman sendoak eraiki. Horretarako, hitzaldiak egingo ditugu herritar guztientzat, adibidez, adizioa zer


*Zentroak 15  
personentzako lekua  
du eta, besteak beste,  
sukaldea, dutxa, arropa  
garbitzea eta tailerrak  
eskaintzen ditu*

den ezagutzen dezaten edota autozaitzari eta prebentzioari oinarritzko ezagutzak izan ditzaten. Horrez gainera, prebentzioa eta sentsibilizazioa lantzeko, institutu-ko ikasleekin solasaldiak izateko prest gaude, baita familien galderei eta kezkei erantzuteko ere". Garciaren ustez, ezinbestekoa da zerbitzuaren erabiltzaileak eta herritarrak ekintza horietan elkarrekin aritzea. "Komunitatea bultzatzen gaituen motorra delako eta zerbaiten parte sentiarazten gaituelako. Ezinbesteko tresna da gizarteratzerako". Horren haritik, Derioko Udalararen jarrera eskertu du, "babesa eta gertutasuna adierazi digutelako eta azpiegiturak utzi dizkigutelako ekitaldiak egiteko".

Gizarte-inklusioko eguneko zentroa astelehenetik barikura arte dago zabalik, 09:00etatik 17:00etara. "Espero dugu ordutegia zabaldu ahal izatea, asteburuak ere gogorak izaten baitira, gehienbat orain, neguan". Zuzendariak oso balorazio positiboa egin du zentroaren hasierako egunei buruz eta ziurtatu digu lan egiteko eta pertsona gehiago artatzeko gogo bizia dutela. "Zerbitzua behar-beharrezkoa da eta, tamalez, pandemien ondorioak direla-eta are beharrezkoagoa izango da". Behar duenak han izango du laguntza.

*"Erabiltzaileentzat ez  
ezik, komunitate  
osorako ere nahi dugu  
onuragarriak izan, eta  
gure artean harreman  
sendoak eraiki"*





## "Ondino ez dot sinesten profesionala nazala"

ASIER DEL RIO | pala-jokalari profesionala

Asier del Rio pala-jokalariak hainbat txapelketa irabazi ebazan zaletu mailan eta horrerik esker profesional jokatzeko aukerea izan dau. Lorpen handia da, Euskal Herrian 10 profesional baino ez dagozalako. Lehenengo lehia urtarilean jokatu zan eta, emoitzak oso onak izan ez arren, lezamarra pozik agertu da bere errendienduagaz. Gogotsu dabil eta ikasteko gogoia dauka.

t/a: Gaizka Eguzkitza

**Zorionak. Ilusino handia izan da Fusto, Gaueka eta horrelako jokalar handien aurrean jokatzeko aukerea eukitea, ezta?**

Bai. Ez neban profesional mailan debuta egitea espero. Ondino ez dot sinesten (kar-kar). Lan handia egin dot horretarako, baina ez neban uste hain goiz etorriko danik; agian, lar goiz, baina tira... Aukerea heldu jat eta ezin deusat horri pasetan itxi.

**Zelan txapelketea? Emoitzak ez dira oso onak izan...**

Tira, bai, esan dozun moduan, emoitzak ez dira onak izan, jokaturako sei par-

tiduak galdu doguzalako, baina espero neban baino hobeto ibili naz. Lehenengo partiduetan urduri nenbilen, eta ez neban maila onik emon. Harrezkero, nire kidea-gaz egin neban berba eta horrek konfiantza emon eustan, hurrengo partiduetan hobeto jarduteko. Oro har, pozik nago egin dodan txapelketeagaz.

**Esteban Gaueka zure kidea aitatu dozu. Jokalari mitikoa da, eskarmentu handien dauenetako bat. Zelan bera-gaz?**

Oso ondo, luxua izan da beragaz ibiltea. Esteban eskarmentu handiko pilotaria da eta, Fustogaz batera, pilotaririk onenetakoa. Enpresak sailkapenaren arabera osatu ebazan bikoteak, eta zorte handia

*"Hasiera ez da inoz erraza izaten. Ondino 23 urte daukadaz eta nire lehenengo txapelketea izan da goi-mailan"*

euki neban Esteban suertatu jatanean. Ohore handia izan da beragaz jokatzeta. Hartu-emon hurrekoa euki dogu, eta berarentzat be ez da txapelketa erraza izan, partiduak galdu doguzalako eta berak irabazteko ohiturea dauelako. Baina hasieraz ez da inoz erraza izaten. Ondino 23 urte daukadaz, gaztea naz eta nire lehenengo txapelketea izan da goi-mailan. Beste pelotariak, osteraz, 10-15 urteko eskarmentua dabe. Apurka-apurka hartuko dot eskarmentua eta pelotari hobeia izango naz.

**Enpresakoek zer esan deusue? Pozik dagoz?**

Bai, pozik agertu dira eta, porrotak egon arren, animau egin ninduen. Etsituta ez egoteko eta aurrera jarraitzeko esan deuste. Ni be oso zorrotza naz nire buruagaz eta batzuetan horrek presino gehiagarria ekarten deust. Hori kudeatzen ikasi



SOHO  
SOUTH OF HOUSTON

19



## Ahalegin handiaren saria

Asier del Rio Uria (Lezama, 1998) kirolaria izan da betidanik. "Txikitan esku-pilota eta futbola gustetan jatazan. Batxilergoan hasi nintzanean, aukeratu behar izan zan eta futbolaren alde egin neban. Larrabetzuko Uritarrak taldean hasi nintzan eta han koadrila egin neban. Halanda be, gazte mailan itxi neban, ikasketetan ez nenbilelako ondo. Futbola itxi eta palan hasi nintzan. Eta orain arte", esan deusku. Asierrek berak ez daki, beraz, nondik jatorkon palarako zaletasuna. "Etxean batez be futbolzaleak dira, ez pelotazaleak. Aititek palan jokatzen eban, baina ez dot uste zaletasuna hortik jatortanik".

Lezamarra Larrabetzun, Olarreta taldean, hasi zan palan jokatzen 15 urte ebazala. "Hasieran, gomazko pelotak erabilten nebazan. Beranduago, 18-19 urte nebazala, larruzko piloteagaz jokatuta gura izan neban, baina Larrabetzun ez egoan ezer: ez entrenatzailerik, ez beste jokalaririk, ez materialik... Beraz, beste talde batera joan behar izan nintzan, eta Gatikan zein Sopelan ibili nintzan entrenatan". Azkenean, del Riok Gatika aukeratu eban, kluba txikiagoa zalako; Sopelan, ostera, jokalaria asko egozan eta maila handiegia eben.

Gatikan gustura ibili da, baina, bere esanetan, hasieran erabat galduta. Irkus Roblesek lagundu eutson eta apur-

ka-apurka hobetzen hasi zan. "Gatikara hobetzera joan nintzan, ez profesionala izan gura nebalako. Baina ordu asko emon dodaz nire kabuz entrenatzen, eta urte bitan beheko mailatik goraino heldu nintzan. Eta orain profesional mailan nabil, hainbeste ahalegin egin eta gero jasotzen dodan saria da".

### Enpresa-kudeaketa

Profesionala izatea sari potoloa da, bai horixe, baina tamalez, gaur egun palistek ezin dabe kirol horretatik bizimodua atara, ezta onenek be. Esku-pelotariet, bai, baina pala-jokalariek, ez, ostera. Ganera, emoten dau palea beti dagoala krisian. Asierren eritxiz, palea ez da behar bezala iragarten. "Eskua palea bezain ikusgarria da, baina jenteak ezagutzen ez badau, ez dago zer eginik".

Asier Lezaman bizi da gurasoakaz, baina Larrabetzun be askotan ibiltzen da. "Jentea harro dago nigaz eta zorionak emoten deustiez Lezaman zein Larrabetzun, profesionaltasunera heldu nazelako". Goi-mailako kirolaria izateaz ganera, Enpresa-kudeaketea ikasten dau Bilbon. "Gatxa da kirola eta ikasketak buztartzea, baina moldatzen naz. Ganera, irakasleek eta ikaskideek lagundu egiten deustie. Karrerea bukatuko dot; bestela, gurasoek etxetik botako nabe (kar-kar)".

*"Profesionaltasun mailan debuta egin neban egunean esan eusten koronabirusa harrapau nebala"*

*"Goi-mailako kirolean burua errendimenduaren % 75 da. Irabazle edo galtzaile egiten zaituana da"*

behar dot, nire ganean ardura gehiegi ez jarteko. Gogotsu nabil beharrean, gogor entrenatzen eta ikasteko gogo handia daukot.

**Koronabirusak guztion bizitza jarri dau hankaz gora, baita zeurea be. Kontauko deustazu zergaitik?**

Bai, debuta 2020ko apirilean egin behar izan neban, baina pandemia zala -eta atzeratu egin behar izan zan. Gogorra izan zan, palan jokatzeke gogoa kendu eustalako; etsituta nenbilen. Halanda be, debuta aurrean neban eta gogoa bai ala bai berreskuratu behar izan neban. Azkenean, lehenengo partidua azaroaren 7an izan zan eta hori jokatu eta gero, egun berean, esan eusten koronabirusa harrapatu nebala. Beraz, aste bi emon nebazan etxean itxita. Egun batzuk lehenago, aitag be harrapatu eban eta kutsatu gintuen. Zorionez, ez neban sintomaririk euki. Urte gogorra izan da, bai.

**Binakako txapelketea bukatu da. Eta orain zer?**

Hurrengo txapelketea banakakoa da. Gatxa izango da, bakarrik ibiliko nazelako, laguntza barik. Burua oso garrantzitsua da goi-mailako kirolean, errendimenduaren % 75 buruan dagoalako. Alde fisikoa be bada garrantzitsua, jakina, sasoian egon behar zaralako, baina psikologia premiazkoa da: burua da irabazle edo galtzaile egiten zaituana. Enpreseagaz urte biko kontratua daukat eta esan deuste gure hartu-emon luze-rako dala. Nik palan hainbat urte emotea espero dot.





Txorierrin gure artean euskaraz berbaz

txori tokia



TXORIERRIN UDAL  
EUSKALTEGIA



#### EUSKALTEGIETAKO IKASLEEN DEIALDIAK-2021

A1 eta A2 mailak egiaztatzeko, ebaluazio-jarraituaren bidez.

B1, B2, C1 eta C2 mailak egiaztatzeko, bi deialdi (euskaltegian egon behar da matrikulatuta):

-2021-04-6 / 2021-04-15 (biak barne).

-2021-09-9 / 2021-09-15 (biak barne).

**ADI !! matrikulatzeko epea: 2021eko apirilaren 6tik 14ra**

#### DEIALDI IREKIAK-2021

B1, B2, C1 eta C2 mailak egiaztatzeko matrikulazio epeak (ez da euskaltegian matrikulatuta egon behar):

-2021-04-6 / 2021-04-15 (biak barne).

-2021-09-9 / 2021-09-15 (biak barne).

#### HOBE 2021 (ORDENAGAILUEN BIDEZ)

-Lehen azterketaldian: C1 eta C2

-Bigarren azterketaldian: B1, B2, C1 eta C2 egiaztatu ahal izango dira.

Matrikulazio epeak:

-2021-03-9 / 2021-03-16 (biak barne).

-2021-09-1 / 2021-09-8 (biak barne).

(\*)Plaza kopuru mugatua dago.

**INFORMAZIO GEHIAGO: [habe.euskadi.eus](http://habe.euskadi.eus)**



**SONIA RODRIGUEZ**  
**JESUS MARI URIARTE**  
**OPTIKA IKUSLAN (ZAMUDIO)**

Optika 1996an zabaldu zuten eta urte hauetan bezero-zorro fidela lortu dute, Zamudiokoak zein Txorierriko gainerako eta alboko herrietakoak. Pandemiaren eragina beren jardueran ere nabaria da. "Lehen, egunean bederatzi ikusmenaren graduazio egiten genituen, baina orain lauzpabost egiten ditugu, ukipen-aparatu guztiez gainera, kabinete osoa desinfectatu behar delako, baita bezeroek probatzen dituzten betaurrekoak ere. Beraz, hitzorduak atzeratzen dira eta, ez itzaroteko, batzuek nahiago dute beste leku batera joan". Martxoko konfinamenduak ekarritako diru-galerari aipatutako egoerak dakarrena gehitu behar zaio, eta urtarilean Zamudio itxi izana ez da lagungarria izan, bezero batzuek bertan behera utzi baitute hitzordua. "Egoera al-dakorra denez, egunean-egunean egiten dugu aurrera. Koltxoi ekonomiko txikia genuen eta hari esker jarraitu ahal dugu zabalik".



**ASIER BENGEOA**  
**SARRIKOLA OGITEGIA (LARRABETZU)**

Ogibidean 26 urte badaramatza ere, ogitegia duela 17 urte zabaldu zuen. "Negozioaren diru-iturri nagusia, % 80, azoketatik dator eta martxotik hona bakarrik azoka bi egin ditugu; lehen, urtean 300 azoka inguru egiten genituen". Ondorioa da zazpi langileetatik sei EEEn daudela eta ogitegian bertan egiten diren salmentekin negozioa nekez atera daitekeela aurrera. "Azoka txikiak egiten dira eta merkataritza-guneak zabalik daude, zergatik ezin dugu guk azokarik egin? Txikiari lagundu nahi diotela esaten dute, baina, gero, egiatan, ez dago inongo laguntasunik. Ez gara kexatzen eta ez gara antolatuta; horregatik gaude txarto". Maiatzerako antolatuta zeuden azokak bertan behera gelditu dira. "Ea abuzturako edo irailerako azokak egiten hasten den, baina, jakina, bitartean, jasan egin behar! Alemanian, esaterako, negozioei laguntza ematen diete haien diru-sarreraren arabera; hemen, ezer ez".



**MANOLI HERNANDEZ,**  
ALAIA FRUTA-DENDA (ZAMUDIO)

Fruta-denda duela zortzi urte ipini zuen martxan. "Hasiera guztiak gogorrek diren arren, ezin naiz kexatu". Bere hitzetan, martxoko konfinamendua oso gatza izan zen. "Denda garaiz zabaldu ahal izateko, goizaldeko 02:30erako izan behar nuen Merkabilbaon. Aparkaleku batean sartzen gintuzten 05:00ak arte eta, gero, ordubetea genuen erosketa egiteko. Bestalde, jendea eskaerak egiten hasi zen, kalera irteteari beldur baitzioten, eta ez zen batere erraza izan zerbitzua ematea". Erabateko konfinamenduaren ondoren, betiko bezeroek jarraitu dute fruta-dendan erosten. "Lehen bezeroek eurek hartu ahal zuten fruta, baina orain kalean itxaron behar dute eta nik banan-banan artatu behar ditut; gatza da, batez ere neguan. Gainera, enpresa handi bi itxi dira herrian eta eragina nabaria da, enpresa horietan lan egiten zuten bezeroek orain gutxiago gastatzen dute eta". Egoerak berari ere ekarri dizkio diru-galerak.



**EVA ARDINES**

AMAR ILE-APAINDEGIA (ZAMUDIO)

Ile-apaindegia 2006an zabaldu zuen. Pandemiaren eraginez, besteak beste, desinfektatze-lan zorrotzagoak egin behar ditu bezero bakoitza artatu ondoren, eta erabili eta botatzeko materiala –toallak, kapak...– erabili. Baina, bere esanetan, hori ez da eragozpen handiena, bere burua ondo antolatzen duelako. "Nire kasuan, hau da pandemiaren eragin handiena: jendeak beldur dio ile-apaindegi-eratoreari, batez ere adinekoek; izan ere, zerbitzua zein den –ilea tindatzea, moztea...–, denbora-tarte luzeagoa edo laburragoa eman beharko dute berton eta beldur diote kutsatzeari. Nolanahi ere, lasai etor daitezke, gure esku dagoen guztia egiten baitugu bezeroei zerbitzu segurua emateko. Bestalde, udalerrien itxiera perimetralak min handia egin digu, kanpoko bezeroak ezin baitira udalerrira sartu". Etorkizuna zalantzarria dela esan digu, "guztionez moduan".





**RUBEN GLERA****RUBEN BITXITEGIA (ZAMUDIO)**

Hogeita hamar urteren ostean, bitxitegia betiko itxiko du otsailaren 15ean. "Oso egoera latzean gaude orokorrean, eta, gainera, okerrera doa pixkanaka-pixkanaka. Pandemiaren aurretik hasi zen nabaritzen salmentek behera egiten zutela, baina, bere esanetan, COVID-19ak azkartu du prozesua. "Erosteke modua aldatu egin da eta Interneten asko erosten da; gazteek batez ere. Kontua da ezin dela Internetekin maila guztietan lehiatu eta, halaber, pandemiak online erosteke joera izugarri areagotu duela. Bitxitegia ixteko aukera azkenaldi honetan izan dut buruan eta pandemia izan da erabakia hartzeko beste arrazoi bat. Bueno, osasuntsu eta gogotsu bagabiltza, beste lan-alternatiba batzuk daude".

**JOSE LUIS LARREA****OINATX LARREA****FORD GOIRI 78 (SONDIKA)**

Enpresa 1978an sortu zen. Hasieran, tailer txiki bat zen Sondikan, herrigunean. Geroago, lokal handiago batera joan ziren eta 1986an Ford markarekin bat egin zuten. 1990ean herrigunetik atara ziren eta Izarza industriagunera joan ziren. Ford markako autoak saltzen dituzte, baina batez ere autoak konpontzen dituzte. "Garai batean autoak saltzen ziren, baina gaur egun negozioa tailerrean dago, horrek bezero finakoak ekartzen dizkizulako. Garai onenetan 18 lagunek egin dute lan, baina gaur egun 11 langile gara: mekanikariak, margolariak eta administrariak", esan digu Jose Luis Larrea jabeak. Pandemiak eragina izan du tailerrean. "Itxialdian ez genuen negozioa itxi behar izan, besteak beste anbulantziak eta medikuen autoak konpontzen genituelako. Hala ere, esate baterako, taxistak kilometro gutxiago egiten dabiltza eta, ondorioz, gutxiago etortzen dira tailerrean. Tira, etekinak murriztu zaizkigu, baina negar egiteak ez du ezertarako balio".

## ALAIN POMPOSO

TXORIERRI SARRAILA-DENDA(DERIO)

Duela 20 urte, Alain Pomposo hasi zen altzariak egiten. "Apurka-apurka hazi zen enpresa. Altzariak egiteaz gainera, sarrailagintza-lanak ere egiten genituen eta duela 10 urte tailerra uztea eta sarrailagintzari ekitea erabaki genuen. Era berean, orain dela hiru urte denda ireki genuen Derion. Orain ez dut altzaririk egiten, orain saldu egiten ditut", azaldu digu Pomposo enpresako buruak. Sarrailagintzari dagokionez, lan hauek egiten dituzte bai enpresetan, bai norbanako etxeetan: atea zabaltu, ate korazatuak jarri, sarrailak aldatu... Alaineekin batera, administrari batek egiten du lan. "Lan-karga handia beti izan dugu eta pandemiak, zorionez, ez dit lanean kalte handirik ekarri".



## OIER ELORRIETA

ELORRIETA INSTALACIONES (DERIO)

Negozia 2005ean jarri zuten martxan eta familiakoek egiten dute lan bertan: Oier bera, emaztea eta Oierren aita. Izenak esaten duen moduan, instalazio elektrikoak egiten dituzte, bai enpresetan, bai etxeetan. Denda Aldekone auzoan dute, Derion. "Elektrizitatearekin zerikusia duen edozein lan egiten dugu", esan du Oierrek. Normalean Bizkaian egiten dute lan, baina ahoz-ahokoaren eraginez, lanen bat Gipuzkoan eta Kantabrian ere egin dituzte. "Koronabirusak eragin handirik ez digu ekarri, baina egia da enpresa handiekin gutxiago egin dugula lan: batzuen jarduera txikiagoa da eta beste batzuek itxi behar izan dute".



**ANOUSCHKA PRIETO  
JULENE SAENZ DE UGARTE**  
ALDEKONE HORTZ-KLINIKA (DERIO)

Hortz-klinika orain dela 19 urte ireki zen Derion. Anouschka eta Julenerekin batera, bertan beste lagun bik egiten dute lan gaur egun. Klinikari denetarik egiten dute: ortodontziak, inplanteak, protesiak, odontologia orokorra, hortzak zuritzea, radiografiak... "Bezero asko hemengoak dira, baina aseguru-etxeekin egiten dugunez lan, beste batzuk kanpotik ere etortzen zaizkigu: Bermeo, Bilbao...", esan du Julenek. Hortz-klinikari kezkatuta daude, "bigarren mailako osasun-langiletzat" hartzen dituztelako. "Otsailean ez genuen uste pandemiak gu harrapatuko gintuenik, baina heldu zen eta hasieran ez geunden prest. Gu jendearen ahoan aritzen gara egunero; beraz, ahal izan dugun moduan ibili gara. Enpresa pribatua garenez, inori ez zaio inporta zer gertatzen zaigun. Zorionez, ez gara kutsatu, segurtasun-arauak zorrotz betetzen ditugulako. Ea txertoa heltzen den eta guztiok hartzen dugun".



**GARIKOITZ URIZAR  
AITOR SAN ROMAN**  
ASTIKENE MOTOR (DERIO)

Bazkide bien artean ireki zuten tailerra orain dela 10 urte. "Urteurrena ospatu nahi izan genuen, baina pandemia dela eta, bertan behera utzi genuen ospakizuna", esan digu Urizarrek. Hasieran hiru lagunek egiten zuten lan bertan, baina gaur egun zazpi aritzen dira guztira. "Itxialdia-eta gogorra izan zen, funtsezkotzat hartu gintuztelako. Beraz, ezin izan genuen tailerra itxi, ezta ABEE bat (aldi baterako enplegu-erregulazioeko espediente) ere eskatu. Hau da, egokitu behar izan genuen, inor kaleratu nahi ez genuelako: ordutegiak moldatu, oporrak aurreratu... Eta horrela jarraitu egin genuen aurrera, nahiz eta lan-karga txikiagoa izan, jendea gutxiago mugitzen delako eta batzuek autoa behar ez zutelako. Beste arlo batzuetan gu baino askoz okerrago dabilta. Ezin gara kexatu".


# Konfinamenduko altxorrak



lazko erabateko konfinamendua oraindik dugu gogoan. Larrabetzun konfinamenduari buruzko kontaketa kolektiboa egin nahi izan zuten eta "Konfinamendu altxorrak" erakusketa antolatu zuten urtearen amaieran, Anguleri kultur etxean. "Itxialdian, neurri batean, sormenari esker egin genuen aurrera", azaldu zuten antolatzailleek.

Erakusketa antolatzeko proposamena Larrabetzuko Umeen Kontseiluaren baitan egin zen. Herritarrak izan dira sortzaileak eta bakoitzak ekarri zuenari esker osatu zuten erakusketa. Denok egin ditugu ezohiko gauzak eta horiek erakusketan partekatu izana hurbiltzeko aukera izan da, ezohikoa eta polita, zeren eta komunitatea modu berrian eraikitzeko eta kontatzeko beharra baitugu. Erakusketan elkartu ditugu bildutako altxorrak, banakako zein taldekako kontakizunak".









TALDEA



**GURENA**

ASISTENTZI ETA EGOITZA-ZERBITZUAK

**ZURE NEURRIRA**



**BABESPEKO  
APARTAMENTUAK**

600 euro  
asistentzia sanitarioa (24 ordu)

**EGONALDIAK  
EGOITZEAN**

egunean  
gauean  
asteburuetan

Unbe txiki bidea 9  
LOIU 48180  
(Urdaneta ikastetxearen aurrean)

**944 530 049**  
**www.gurena.com**



# Ez galdu Berbalagun egitasmoan parte hartzeko aukera!

a: Berbalagun

Urrian, ikasturte-hasierarekin batera, berbalagun-taldeak ipini genituen mar-txan Txorierrin; urtarilean berriro zabal-du da egitasmoan parte hartzeko izena ematea, berbalagunen sarea ehuntzen jarraitzeko. Berbalaguna euskara bizitzeko eta erabiltzeko aukera paregabea da, parte-hartzaileak astero ordu batean-edo biltzen baitira mintzapraktika egiteko eta, gainera, ekimenak euskaraz egiteko guneak eta uneak sortzen baitira. Halaber, ekintza osagarriari esker, beste herri eta eskualde batzuetako berbalagunak ezagutzeko parada dago. Herriko euskaldunekin bizipenak partekatzeko prest? Ez galdu aukera eta eman izena!

Uda ondoren, asteroko hitzorduei ekin genien, elkarrekin esperientzia aberasgarriak bizitzeko gogoz. Urtarilaren berriz ere bildu gara mintzapraktika egiteko, eta, era berean, egitasmoan parte hartzeko izena ematea zabaldu dugu. Euskaraz bizi nahi dugulako, berbalagunok bospasei pertsonako taldeetan biltzen gara lagun-giroan aritzeko. Mintzapraktikaren ondorioa pixkanaka-pixkanaka nabaritzen da: kalean ere euskara zekitenik ez genekien hamaika pertsonarekin hasi gara euskaraz egiten.

Berbalagun-taldeetan honakoak egoten dira: euskaraz aritzeko ohitura, trebetasuna eta erraztasuna lortu mahi dutenak eta euskara egunero erabiltzen dutenak. Helburuak dira euskaraz hitz egitearen beldurrari aurre egitea, ahaztutakoa gogoratzea, euskara-maila hobetzea edota, besterik ez, euskaraz gozatzea.

## Nondik norakoak

Berbalagun egitasmoak elkartzen ditu euskaraz hitz egiteko ohitura duten pertsonak eta euskaraz egin nahi duten pertsonak. Talde txikietan eta astean behin, parte-hartzaileak batzen dira paseatzeko, kafe bana hartzeko... edo bururatzen zaiena egiteko; hau da, euskaraz aritzeko eta bizitzeko. Egitasmoan modu bitan hartu daiteke parte:



euskara praktikatzuz (bidelaria) ala euskara praktikatzan lagunduz (bidelaguna). Berbalagun izateko baldintza bakarrak dira euskaraz komunikatzeko gai izatea eta astean gutxienez ordubetez elkartzeko prest egotea. Zeri itxaroten zaude? Ez izan zalantzarik eta etorri Txorierriko berbalagunekin euskaraz bizitzera! Gainera, Euskaraldiari jarraipena emateko aukera ezin hobe da, batez ere belarriprest aritu zarenontzat, hizkuntza-ohiturak aldatzen segituko duzuelako.

## Datozen ekintzak

Urtarilean, Lauroeta-Mungia ibilbidea egin dugu, ermitaz ermita. Paraje ede-

rrek inguratuta eta giro atseginean, apur bat gehiago ezagutu dugu gure ondareari buruz. Bestalde, datozen hilabetei begira, beste ekintza batzuk antolatzeko asmoa dugu, hala nola talo-ikastaroa eta txakolindegia batera bisita, baina horiek pandemiaren bilakaerak baldintzatuko ditu; beraz, dagokionean emango dugu haien berri. Nolanahi ere, gogora ekarri nahi dugu Berbalagunen mendi-taldeak Bizkaiko Bira egiten jarraitzen duela. Eguraldia lagun, abagune ederra da lurraldeko bazterrek ezagutzeko eta disfrutatzeko. Taldekideak martitzenetan batzen dira eta, mendizalea bazara, zuk ere egin dezakezu eurekin bat. Animatu!

**Enaitz**  
TABERNA

Ogitartekoak  
Anoak  
Plater konbinatuak

94 455 42 15  
Garaioitza, 74  
48196 Lezama

**Sondigarbi**  
GARBITEGIA


ITURRIGANE, 2  
635584941

EGUNERO  
8:00-22:00



**berba  
Lasun**

**telefonoa:**  
63575 35 95  
**e-maila:**  
txorierri.berbalaguna@gmail.com  
**antolatzaileak:**  
TOTOAN TEEF  
Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea



 **RADIO TAXI  
FEMADE** *Zure taxi,  
Txorierrikoa*

Zamudio - Derio - Sondika - Lezama - Larrabetzu - Loiu

**24h 94 480 09 09** 

**ERRESERBAK:**  
[www.taxiaseopuertobillbao.com](http://www.taxiaseopuertobillbao.com)


**DESKARGATU APP-A**

  
**TAXI FEMADE**

 **ZAMUDIO  
Loteria Nazionala**

Leizaola L. plaza, 7  
Tel.: 94 452 09 59  
Faxa: 94 656 69 95  
[josuastorkiza@gmail.com](mailto:josuastorkiza@gmail.com)





t: Itxaso Marina Ondarroa

## Itzuli +

Eusko Jaurlaritzak Itzuli+ luzapena ipini dau herritarren eskura, Itzuli itzultzaile automatikoari lotzeko. Hala, tresnen katalogoa handitu da, “ikasleek eta profesionalek testuak errazago eta hobeto itzuli daiezan”, azaldu dabe. Gainera, itzultzaileak jatorrizko testua eta itzulitakoa irakurtzeko aukerea emoten dau, “eta hori interesgarria da interprete-beharretan dabilzanentzat eta ikusmen-urritasuna edo dislexia daben pertsonentzat”. Itzuli + luzapena honek aurkeztu eben jentearrean: Miren Dobaran Hizkuntza Poli-

tikarako sailburuordeak, Maria Begoña Pedrosa Hezkuntzako sailburuordeak eta Xabier Patxi Arrieta Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien zuzendariak. Sustatzaileen berbetan, Itzuli + oso tresna gomendagarria da testuak egiteko eta itzultzeko. “Ikasleek eta gurasoek askotan erabiltzen dabe eta, era berean, oso erabilgarria izan daiteke esparru akademikoan eta erakunde publikoakaz harremanetan ibiltzeko”. Luzapenak Interneteko erreminta batzuk batu dauz

*Luzapenak itzuli itzultzaile neuronal, hiru hiztegi, euskerazko Wikipedia eta abots-sintesia batu dauz*

bere baitan: Itzuli itzultzaile neuronal, hiru hiztegi (Elhuyar, Morris eta Collins), euskerazko Wikipedia eta abots-sintesia. Itzulpenak gaztelaniatik, ingelesetik eta frantsesetik euskerara egin daitezke, eta euskeratik gaztelaniara, ingelesera eta frantsesera.

Luzapena Firefox eta Chrome nabigatzaileetarako sortu da eta automatikoki lotzen da Itzuli itzultzaileagaz. Oso erraza da erabiltzen: webgune baten paragrafo bat edo gehiago aukeratuz gero, Itzuli + luzapenaren ikonoa sakatu behar da eta itzulpen automatikoa agertzen da. Beta aukerea sakatzuz gero, testu itzulia entzun daiteke.

Itzuli egitasmotik eratorritako proiektua da Itzuli +. Adimen artifizialek abiatuta, Itzuli itzultzaile neuronal 2019ko urrian ipini zan martxan, eta handik hona 41 milioitik gora kontsultari emon deutse erantzuna. Itzultzaile neuronal hainbat urtetako lanaren emaitza izan da eta IVApek (Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea) 20 urtean bildutako itzulpen-memoriak erabilia ezarri da. “Itzulpengintzan izandako eskarmentu handiari esker, batez be euskeratik gaztelaniara eta gaztelaniatik euskerara egindako itzulpengintzan, oso datu-base terminologiko eta linguistiko handia lortu da. Bestalde, IVApek 20 urte daroaz itzulpen-memoriak sortzen, eta, horri esker, 10 milioi segментutik gorako datu-baseak dagoz, itzuliak, berrikusiak eta eguneratuak. Ondorioz, kalidade handia dau Itzulik”.



# Geldoko koplak 90 urte garrenean.

## Istorio hau historia da

t: Juan Luis Goikoetxea

Santostxuk, Pantxikaren eta Bitoriano-ren semerik gazteenak, goizeko zortzietan urten dau Solondo baserritik auzo-ikastolara joateko. Erraz bete ditu Elorriagoiko baserrira dagozan 400 metroak.

Hara heldu danerako, itxaroten euki ditu bere adineko Santi eta Ale, 8 eta 9 urtekoak. Bien aitak, Norbertok, atarira heldu baizen laster itaundu deutso Santostxuri:

- Aitak atara jok gaur koplarik?
- Bai, Norberto!
- Ea, ea kantau Santostxu!

Basorik baso, solorik solo joanta dago Madrille, gure auzoan egon behar deu mutilen batek abille.

-Ederra, Santostxu!

Jarraian, Santos, Ale eta Santi eskolaraino joan dira koplakantari, harik eta buruz ikasi dabezen arte.

1936an Santostxu, 12 urteko dala, hil zan gangrenaz, asko sufridu ondoren. Ostera, Santi eta Ale anaiak luzaro bizi izan

dira, 80 urtetik gora. Horri esker grabatu ditugu guk 2006an Bitoriano Bolunbururen, Santostxuren aitaren, koplak minidisketan.

Alek eta Santik 73 urtez gorde ditue oroimenean Geldoko koplak. Horretarako teknika zuhurra erabili izan dabe. Soloan, ortuan, beharrean ibiltzen izan diranean, koplak kantetan izan deutsiez alkarri. Horri esker ez dira galdu.

Egia esan, badakigu txorierritar askok kantau izan ditua Geldoko Kaminoko koplak urteetan, baina ahozko tradizioa ia etenda aurkitu dogu guk.

2021ean, Zamudioko LAGATZU kultura alkarte prest-prest agertu da laguntza emoteko koplak guztiak paperean eta euskarri elektronikoen argitaratu daiguzan. Guk horixe egin dogu GELDOKO KOPLAK izeneko liburuan.

Dana dala, liburu horretan, koplez gainera, beste gai garrantzitsu batzuk be agertzen dira: auzo-ikastola barria; Indalecio Prieto Geldoetan errefuxiatuta egon zan anekdota; sorginen eragina; 1936ko guda, eta abar.

Kontua da, amaitzeko, talde lana polita dala oso, garrantza izan nahiz gozo.



**Iz**  
Ile-apaindegia  
estetika

Txantxangorri. 2  
ZAMUDIO  
946 036 943

**Hortz-klinika IDOIA ZUBIETA**

Osasun-zentroa & Hortz-estetika  
HORTZ-INPLANTEAK - ESTETIKA-ORTODONTZIA

Areitza doktorea, 11. - 1. ezk.  
48011 BILBAO  
T: 944 416 322

Urbe Plaza, 1  
48170 ZAMUDIO  
T: 944 521 370

IKUSLAN

Arbolantxa kalea, 5, behea  
ZAMUDIO  
Tel.: 94 452 28 18

**GORBEIA MERTZERIA**

Gorbeia kalea, 7  
ZAMUDIO  
94 655 90 06

**GAMINIZ JATETXEA**

Tel/Fax: 944 317 025  
email: gaminiz@gaminiz.com

Ibaizabal 212, Parke Teknologikoa  
48170 Zamudio - Bizkaia  
GPS: 2°51'41" W 43°17'37"N

www.gaminiz.com



## Etxeko sukaldaritza

## Txahal-azpizuna, sagarragaz



t: Maite Lekerika / a: elgourmet.com

**Osagaiak (4 lagunentzat):**

- 200 g-ko 4 azpizun
- 2 sagar
- Gurin apur bat
- 150 ml sagardo
- 50 g gaztai urdin
- Oliba-orioa
- Gatza
- Piperbaltz baltza

**Prestetako area:**

Sagarrak zurituko doguz, dadotan ebagiko doguz eta zartagin baten arin erregosiko doguz gurinagaz. Sagardoa gehituko dogu, baita gaztaia be. Su ez-tan egosiko doguz bi minutuz. Gustukoa badugu, piperbaltza be botako dogu. Beste alde batetik, txahal-azpizunak plantxan egingo doguz orio eta gatz apur batez. Azpizunak saltseak lagunduta aterako doguz mahaira.

## Papaia-moussea

**Osagaiak:**

- Papaia handi bat
- Laranja bat
- Koilarakada bat azukera baltz
- Jogurt greko bat
- Gelatina orri bi
- Menda-hostoak

**Prestetako area:**

Laranjari ura aterako deutsogu eta iraziko dogu. Papaia zurituko dogu, haziak kendu, eta zatituko dogu. Irabiagailuaren ontzian papaia-zatiak, laranja-ura eta azukerea ipiniko doguz eta irabiatuko dogu harik eta pure homogeneoa lortzen dogun arte. Beste alde batetik, gelatina ur hotzetan izango dogu 5 minutuan. Surtan baso erdi bat ur ipiniko dogu eta irakiten danean gelatina gehituko dogu. Erango dugu urtu arte. Papaia-pureari prestakin hori eta jogurta gehituko deutsoguz eta erango dogu krema egin arte.

Krema ontzi txikietan banatuko dogu eta hozkailuan gitxienez hiru orduan izango doguz. Mousseak gogortzen diranean, hozkailutik aterako doguz eta, gustuko badugu, menda-hostoak apainduko doguz.



**SARRIKOLA  
OGITEGIA**

Euskal pastela  
Baserriko ogia  
Bizkotxoak  
Hainbat tarta

 Sarrikola, z/g Larrabetzu  
Tel.: 94 455 83 37  
619 78 58 84

**ERREKA LONDO**  
**JAT ETXEA**

Eguneko menua, asteburuko menu berezia, karta,  
enpresen bazkariak, jaunartzeak, familien bazkariak

Arteaga, 80  
Zamudio 48170 (Bizkaia)  
Tfnua.: 94 452 14 19  
Faxa: 94 452 26 29

**izpilen**  
PARAFARMACIA • BELAR DENDA

Sabino Arana, 3 Iorja - 48150 SONDIKA (Bizkaia)  
946 558 000 - 689 998 843 - izpilen@gmail.com

**hotela  
jatetxea  
aretxarte**

Teknologi Parkea - Eraikuntza, 200  
48170 ZAMUDIO - (BIZKAIA)  
Telefona: 94 403 69 00  
Faxa: 94 403 69 01  
e-mail: hotel@aretxarte.com  
e-mail: reservas@aretxarte.com  
www.aretxarte.com

## Umeen txokoa: bost desberdintasunak

Ezetz bost desberdintasunak topatu irudi bien artean. Bukatzen duzunean, irudiak margotu eta moztu ahal dituzu.  
a: [www.recrekids.com](http://www.recrekids.com)



## Gomendioak

### LITERATURA: NAGUSIAK

–*Katalina Foixkoa* (Nabarralde), Angel Rekalde Goikoetxea. II: Ainara Azpiazu Aduriz -Axi-.

–*Mendekuaren hazia* (Elkar) Alberto Ladron Arana.

–*Andromedan* (Erein), Joxean Sagastizabal Errazu.

–*...eta infernuko demonioa adiskide* (Elkar), Iñaki Irisarri Pellejero.

–*Bizitzak* (Pamiela), Koldo Aljostes.

### LITERATURA: GAZTEAK

–*Galdu samar* (Nubeocho), Chris Haughton

–*Kuoi* (Txalaparta), Fito Rodriguez Bornaetxea. II: Irrimarra bikote sortzailea.

–*Etxegabetuak* (Erein), Nerea Arrien. II: Diego Besne.

–*Enigmak 2: Jo erronka zeure buruari zientzietako 25 enigmaren bidez* (Tarttalo). Ana Gallo López. II: Victor Escandell

## Sudokua

|   |   |   |   |   |   |   |   |   |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
|   |   | 1 |   | 2 | 3 |   |   |   |
|   |   |   |   | 9 | 1 | 5 |   |   |
|   |   |   | 6 |   |   |   |   | 8 |
|   |   |   | 1 | 5 |   |   |   | 2 |
|   |   |   |   |   |   |   |   | 6 |
| 6 | 5 | 9 |   | 2 | 8 | 3 |   |   |
|   |   |   | 2 |   | 6 |   | 9 |   |
|   |   |   |   | 3 |   | 1 | 4 |   |
|   |   | 9 |   |   |   |   | 8 |   |

|   |   |   |   |   |   |   |   |   |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 3 | 8 | 2 | 4 | 9 | 5 | 6 | 1 | 7 |
| 5 | 4 | 1 | 6 | 3 | 7 | 9 | 8 | 2 |
| 6 | 7 | 9 | 8 | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| 1 | 3 | 8 | 2 | 4 | 6 | 5 | 7 | 9 |
| 9 | 5 | 4 | 7 | 8 | 3 | 2 | 6 | 1 |
| 2 | 6 | 7 | 9 | 5 | 1 | 8 | 3 | 4 |
| 8 | 1 | 3 | 5 | 7 | 9 | 4 | 2 | 6 |
| 4 | 2 | 5 | 1 | 6 | 8 | 7 | 9 | 3 |
| 7 | 9 | 6 | 3 | 2 | 4 | 1 | 5 | 8 |

**PELUKERIA  
ESTETIKA**  
LARRABETZU

Anguleri n° 2 Bajo - 48195 LARRABETZU  
Tel. 944 558 144

**GALAISA**  
Estetika eta ile-apaindegia  
94 453 04 85 - 94 471 10 51

Sabino Arana 1-3. SONDIKA

**TABERNA  
GAZTE**

Eguneko menuak  
Ospakizunak

Aretxalde, 141 - 48196 LEZAMA  
944554422 - [gazteditaberna@gmail.com](mailto:gazteditaberna@gmail.com)



## Hitzaldiak

### Larrabetzu

- > Literaturaz berbetan: Kattalin Minerren *Turista klasea* lana. Otsailaren 18an, 19:00etan, Anguleri kultura etxean.

## Ikastaroak

### Zamudio

- > Mutil- eta neska-lagun tailerra, Europako Osasun Sexualaren Eguna dela eta. Otsailaren 14an, 19:00etan, Gaztestazioan. Izena ematea: otsailaren 12ra arte.
- > Etxeko taloa. Otsailaren 26an, 18:00etan, Gaztestazioan. Izena ematea: otsailaren 17ra arte.

## Ikuskizunak

### Zamudio

- > Pelikula. Otsaileko domeka guztietan, 18:00etan, Gaztestazioan.

## Lehiaketak

### Zamudio

- > Futbolin txapelketa. Otsailaren 6an, 19:00etan, Gaztestazioan.
- > Tostada eta mozzorro lehiaketak, Inauterien haritik. Otsailaren 19an, 18:00etan, Gaztestazioan.

## Musika

### Lezama

- > Rafa Ruedaren kontzertua. Otsailaren 20an, 19:00etan, Andra Mari elizan. Zorritzetan euskara elkarteak antolatua.

### Larrabetzu

- > Kontzertuak Hori Baien: Iker Lauroba. Otsailaren 26an, 18:30ean, Hori Bai gaztetxean.

## Ospakizunak

### Zamudio

- > Santa Agedaren bezpera. Otsailaren 4an.

## Bestelakoak

### Zamudio

- > Martxoko programazioa antolatzeko batzarra. Otsailaren 5ean, 19:00etan, Gaztestazioan.



## Komikia

Ana Galar



# Konekta zaitez gurekin!



**Facebook:**  
aikoraldizkaria



**Twitter:**  
@Aikortxorierrri



**Instagram:**  
aikor.aldizkaria



**Webgunea:**  
www.aikor.eus



## Zure argazkiak eta albisteak bidali




**WhatsApp:**  
688 86 41 35



**E-posta:**  
aikortxori@aikor.com

## Parte hartu aikor.eus webgunean

Erregistratzeko, webgunearen goiko aldean ageri den SARTU botoiari klik egin



ERABILTZAILE BERRIA NAIZ ETA IZENA EMAN NAHI DUT aukeran klik egin

Kide bezala erregistratu nahi baduzu, eta zure **edukiak argitaratzeko** (argazkiak, hitzorduak, albisteak...) erabiltzaile arrunta bezala izena eman behar duzu, eta amaieran, aikortxori@aikor.com helbidera mezua bidali behar duzu zeure nahia jakinarazteko.



# **GASOLINDEGI BARRIA**

## **SASINE INDUSTRIAGUNEA LARRABETZU**

# **BIDEKO**

ERREPIDEAN BIDELAGUN



**Garraiolaria  
bazara,  
egin bazkide!**

**Partikularra  
bazara,  
emon izena  
deskontua  
jasotzeko!**

[larrabetzu@hiru.org](mailto:larrabetzu@hiru.org)  
T: 629 162 230  
[www.bidekoaterpe.eus](http://www.bidekoaterpe.eus)



24h/365

# **GASOLIO ONENA, PREZIO EZIN HOBEAN!**